

uk

140. zenbakia / 2008 ekainak 30





BERDINEAN ERE, EMON EUSKARAZ

EUSKALDUNAK BEHAR DITUGU



Irailaren 23a plaza - 48950 ERANDIO
94 489 01 28 - euskara@erandioko-udala.net



Irailaren 23a plaza, 48950 Erandio (Bizkaia) 944 890 100 944 890 187



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Arrapala mekaniko berria.
7. LEHEN ETA ORAIN. Gobelaurre edo Amaia kalea.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Leioako Mari Pepa eta Arlote.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN


26. ALBUMA. III. Mintza Eguna Eguna Getxon.
28. ARGAZKIA. Uriolak Portu Zahrean.
30. BERBETAN. Martxelo Otamendi, Zuberoka Iturburu.
34. FOTOGRAFIA. Arkatiak, Asier Mentxaka.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. New York Film Academy Bilbon.
43. MUSIKA. Bilbao BBK Live. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Lauxetaren olerkiak. Liburuen erreseinak.
45. KIROLAK. Sakibaloio udako campusa.
46. ELKARRIZKETA. Richars Meza.

AMAITZEKO

49. NON JAN. Sustrai taberna.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Zaldudo Goikoa baserria 1934, Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Xabier Amuriza.



30 Martxelo Otamendi



11 Leioako Mari Pepa eta Arlote

Berbetan

Euskaldunon Egunkaria zuzendu zuen lehenik eta Berria ondoren. Euskal prentsaren aurpegi ezagunenetakoa da Martxelo Otamendi tolosarra.




46 Richars Meza



14 Irati Elorrieta



26 Mintza Eguna Getxon



54 Xabier Amuriza



Leioa Berri Auto

¥ Ibilgailu berriak
¥ Aukerako ibilgailuak


www.renaultleioa.com

Iparragirre 9448940 LEIOA BIZKAIA
Tel.: 94 480 4670 Faxa: 94 480 42 43



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILIA: Boluntzarieta Elkartea
HELBIBIDEA: Arretzi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
 Tel: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Ander P. Gokoetxea,
 Matiane Nerekan, Zuberoa Iturburu
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Inge Beitia
KOLABORATZAILERAK: Bitor Egumola,
 Oskar Fernández, Unai Armezaga, Itsaso Arana,
 Gaizka Escudero, Xabier Paya, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarna
 Lepoan Euskara Elkartea.
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozoi, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarieta

 Aldizkari hau Euskal Herriko
 herri aldizkari eta euskara elkarleen
 Topaguneko parteidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILERAK



gugeu

Bidegabekeriak

Tamalez bidegabekeria asko gertatzen dira gaur egun ere gure herri zahar honetan. Denak aipatzeko lekurik ez dago atal labur honetan, ehunka UK beharko genituzke horretarako. Prentsari dagozkienei erreparatu diegu oraingoan. Orain dela ez asko esaterako, lehergailua ipini zioten Bilboko El Correo egunkariari. Orain dela asko Getxoko Galea aldizkariari gauza bera egin zioten eta atea itxi behar izan zuten. Orain dela asko ere bai Euskaldunon Egunkaria itxiarazi zuten. Bidegabekeriaren hiru adibide nabarmen baino ez dira hauek, denak salagarriak.

Ale honetan Martxelo Otamendi elkarrizketatu nahi izan dugu, izan ere Euskaldunon Egunkariaren errautsetatik sortu eta berak zuzentzen duen Berria egunkariak bost urte berri ditu. Bestetik, laster Egunkariaren aurkako epaiketa bi egingo dira Madrilén, aditu sinesgarrien arabera behintzat, erabateko bidegabekeria juridikoa.

Bidegabekeriak salatu behar dira, guzti guztiak. Batzuek berriz, bidegabekeria jakin batzuk baino ez dituzte salatzen. Bidegabekeria hau ere bai.

UK-ko lantaldea

egon ginen > Algortako pala txapelketako finala



Beste urte batez Robert Simpson zenaren oroimenez egiten den Algortako Pala Txapelketan parte hartu dute makina bat lagunak. Ekainaren 14ko finalean aurpegiak ikusi zituzten herriko puntako palariak. Kirola egiteko aukera eskaintzeaz gain, giro ezin hobea sortzen delako da ezaguna pala-txapelketa. Algortako uda hasierako ikurretako bat da; San Nikolas plaza jendez gainezka eta palarien oihuak uda badatorrela iragartzen digute urtero. Goiko argazkian aurtengo parte hartzaileetako batzuk ditugu. Finala jokatu eta gero familia-argazkia atera zuten Langraitzeo espetxean preso dagoen Lander Labajo algortarrari bidaltzeko; izan ere, palari amorratua da Labajo.

[irudia]



ALGORTA, 2008KO EKAINAREN 20A

Arrapalak / Salsidu kaleko arrapala mekanikoak inauguratu zituzten ekainaren 20an Algortan. Legegintzaldi honetako eta aurreko legegintzaldiko udal batzordeak batu ziren horretarako; izan ere, Iñaki Zarrhoa alkate ohiaren eta bere gobernu taldearen proiektua da arrapalena. Salsiduko aldapa igotzea aringarriago bihurtu dute tramankulu mekaniko horiek eta edadetu zein ezinduentzat lagungarriak izango dira. Horientzat eta osasunez hobeto dauden alperrentzat ere bai, jakina. ○ / Argazkia: **A. Mentxaka**

EROS NAZAZU
EUSKARAZ.

BAI



MERKATARITZAKO LANGILE HAU EK ZUREKIN EUSKARAZ BERBA EGIN NAHI DUTE. IKASTARDA EGIN DUTE HORRETARAKO, ZERBITZUA EUSKARAZ EMATEKO. EUREN AHALEGINA ESKERTZEKO MODURIK ONENA EUSKARAZ EGITEA DA.

GALDARETXE GOZOLABEA (OBRADOR)
PERSIANAS, TOLDOS Y MOTORES LBF
ARANTZA LORADENDA/ FLORES ARANTZA
BATZOKI TABERNA
GROUPAMA ASEGURUAK
ABERIAK AKUARIODENDA

 **Getxo**
UDALA • AYUNTAMIENTO ▶ Euskara Zerbitzua

 **EUSKARA
BIZI**



[lehen]



[orain]

Iraganez doa denbora* beti / GOBELAURRE EDO AMAIA KALEA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > zoria



Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Txuriko

Denok siniskerien
poltsa bat daukagu
inor ere ez dago
sinistetik salbu.
Katu baten aurrean
gizaki gara gu
beltza bada, ordea,
edonor da sagu.

Beltza dotorea da
mahats eta ardo
txipiroiaren tinta
beltz-beltza nahiago.
Beltzaren kontra aldiz
jende asko dago
eta katua bada
oraindik gehiago.

Gauetz bakarrik joan
behar etxeraino
zerbait azaltzen bada
susto latza, koño!
Zer aurkitu nahi nukkeen
ez dakit hondino...
Nahiago katu beltza
txakur beltza baino.



ESKOLA ETA IKASTOLA EZBERDINETARAKO

BEGIRALEAK BEHAR DITUGU

Auzo Lagun

Euskara beharrezkoa da / Orduetgia: eguerdian
Kontratua: kurtso eskolarra edo ordezkaketak
Bidali CVa: rrhh.ure@auzolagun.com

urduliz > zazpiak bat eskultura berria Kultur Etxearen alboan



Kultur Etxe ondoan dago eskultura berria

Urdulizko Udalak Euskal Herriko zazpi probintziak ordezkatu nahi dituen *Zazpiak bat* izeneko eskultura ipini berri du Kultur Etxearen kanpoaldean. Cortem altzairuz eginda dago Luis Saitua Urdulizko Udaleko arkitektuak diseinatu duen artelana. Zazpi beso handi ditu eta horietako bakoitzaren oinarria probintzien perimetroaren arabera eginda dago. Beso bakoitzaren gainazala irudikatzen duen lurralde historikoaren eremuaren arabera eginda dago. Gainera, pieza ezberdinen altuera probintziek daukaten biztanle kopuruaren arabera zehaztu du Saituak. Eskultura borobiltzeko, kokapena kontuan hartu du; izan ere, Euskal Herriko barizentroa eta probintzia bakoitzeko hiriburua lotuz lortutako koordinatuen arabera zuzendu ditu besoak. Honez gain, informazio panel elektronikoa ipini du Udalak. ○

barrika > satellite bidez zuzendutako erlojua ipini dute elizako dorrean



Bodet Frantziako etxeak egin du erloju elektronikoa

Ekainaren 24an inauguratu zuten Barrikako Elizako dorreko erloju berria. Eta ez da edonolako erloju elektronikoa da, erabat automatikoa eta satellite bidez zuzendua. Ordua zehaztasun osoz ematen du antena bati esker eta automatikoki eguneratzen da. 6000 euro inbertitu dituzte herriko txoko ezberdinetatik ikus daitekeen erloju berritzeko. Erlojua aldatzeko ideia Santa Ageda abesbatzarena izan zen. Iñaki Zarate eta Javier Peña koroko kideek adierazi dute herriak eginiko eskaria dela eta denen mesederako izango dela. Aurreko urteetan, elizako kanpaiak berritzeko, berogailua ipintzeko edota aldarean balastrada jartzeko erabili izan dira, besteak beste, Santa Ageda abesbatzaren laguntza ekonomikoak. ○

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
280808 Getaria
Gipuzkoa



...harria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

euskara > Ku-ku! Haurrekin hitz egiten hasteko gidaliburua



Formato txikian eta kolore bizi eta erakargarrietan eginda dago gidaliburua

Askotan merezi duena baino garrantzi gutxiago ematen diogu umeek lehenengo hilabeteetan ikasten dutenari. Txikiak dira eta ez dute berba egiten; hala ere, horrek ez du esan nahi denbora horretan ikasten ez dutenik. Hizkuntzaren barneratze prozesuan adibidez, sekulako garrantzia daukate lehenengo momentu horiek. Ideia hau abiapuntutzat hartuta, ekimen berezia jarri du martxan Leioako Udalak. *Ku-ku! Haurrekin hitz egiten hasteko gidaliburua* kaleratu du, haurrekin lehenengo urteetan erabiltzen diren euskarazko hitzen bilduma. Kolore biziek eta poltsiko edizioan egindako eskuliburua da eta kilokolo edo kika bezalako hitzak aurki daitezke bertan. Hiztegi hau ezagutzen ez duten euskal hiztunei, zein euskaraz ez dakiten baina seme-alabekin euskaraz hitz egin nahi duten erdaldunei zuzenduta dago. 2006 eta 2008 urteen artean jaiotako umeak dituzten gurasoei doan banatuko die gidaliburua Leioako Euskara Zerbitzuak. ○

arteak > kultura sustapenerako Euskal Institutua sortuko du Jauriaritzak



Jauriaritzaren Kulturaren Euskal Planaren urrats berria da Institutua

Eusko Jauriaritzak Arteen eta Industria Kulturaren Euskal Institutua sortuko duela iragarri du. Enpresa izaerako ente publikoa izango da eta Spri edo Ihobe entitateek industria jarduerarako eta ingurugirorako duten izaera bera izango du kultura sustapenerakoak. Kulturaren Euskal Planaren urrats berria da hau. Euskadi.net webgunean aurki dezakegun txostenean irakur dezakegunagatik, *"Arteen eta Industria Kulturaren Euskal Institutuaren zeregin nagusia euskal arte eta kultura ekoizpena sustatzea izango da. Zuzenbide pribatuko ente publikoa izango da, eta beraz, bere helburuak betetzeko behar adina autonomia izango du"*. Helburuen artean, sortzaileak eta produkzioa bultzatzearena edota Euskal kultura-ekoizpena hedatzearena azpimarra daitezke. ○



"Antzineko ipuinetako morroi berbaldun eta parrandazalea da Arlote; Mari Pepa bere emaztea da"

Olatz Pampliega eta Urtzi Goiti > Mari Pepa eta Arlote

Arlote, Leioako jaietako panpina gogoangarria, hezur eta haragizko bihurtu da aurten eta txosnaz txosna edo ekitaldiz ekitaldi dabilenean bakarrik ez egoteko, Mari Pepa emaztea juntatu zaio. Olatz Pampliega eta Urtzi Goiti Orfeo Ganbera abesbatzako lagunak izan dira bikote bitxi honi bizia emateaz arduratu direnak. Biak leioztarrak eta euskaldun petoak dira, baita jaizale amorratuak ere; horregatik, primeran egokitzen dira paperera: *"Arlote antzineko ipuinetako morroi berbaldun eta parrandazalea da, pertsonaia xelebrea. Bilbon Zaranbolas daukaten moduan Leioan Arlote daukagu. Mari Pepa bere emaztea da"*. Lerro hauek irakurtzen dituzuenean, ohean etzanda leher eginda egongo dira Olatz eta Urtzi; izan ere, gau eta egun ibili behar izan dira antzinakoz jantzita, jaietako ekintza ezberdinetan parte hartzen: *"Polita izango da; azken urteotan jaiak gauz bizi izan ditugu gehienbat eta honek eguneko giroan parte hartzeko ohitura berreskuratzea ekarriko digu, gaztetan koadrilen txapelketan ibiltzen ginenean bezala"*. Pregoia idatzi eta irakurri, txotx irekiera egin, Antzineko Eguneko karrozetan joan... denetarik egin dute; eta gauz parranda, jakina: *"Zaila izango da trajea garbi mantentzea; parrandarako aldatu egin beharko dugu"*. Jaiak hasi baino lehen gogotsu zeuden Mari Pepa eta Arlote; espero dugu horrela jarraitzea. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan **Reprografía**

global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Kartelak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
- enmarkaketak •



Uriolen ordainak

Getxoko Udalak uriolen kalteak arintzeko **8.746.200 euroko** kreditu gehigarria bideratzea onartu du eta udalerrira **“hondamendi eremu” izendatzeko eskaria** eginda dagoela jakinarazi dute

Ekainaren hasieran Getxok jasandako uriolen kalte-ordainen berri eman dute oraintsu eta besteak beste, 8,7 milio euroko kreditu gehigarria onartu dute aho batez Udalean ordezkariak politikoa duten alderdi guztiek. Bestalde, Getxoko alkate Imanol Landak jakinarazi zuenez, Getxo “hondamendi eremu” izendatzeko eskaria egin dute dagoeneko, baina horren onarpena Ministroen Kontseiluaren esku dago.

Uholdeek eragindako kalteak arintzeko zuzendutako 8.746.200 euro horiek gutxi gorabehera hurrengo egitekoetan banatuko dira: 5 milioi eraikinak eta bestelako eraikuntza mota batzuk konpontzeko (kopuru horretako zenbateko nagusia Fadurako azpiegiturak konpontzeko zuzenduko dute); 2 milioi euro proiektu konplexuetarako, berbarako, eremu kaltetuenetako saneamendu sarea eta hustubideen gaineko azterketa teknikoa egiteko; eta milioi bat euro kalteak jasandako familientzat. Udaletik adierazi dutenez, aipatutakoaz gainera, diru kopuru bat egongo da garbiketa lanetarako eta beste azpiegiturak konpontzeko. Horren albotik, Ollarretxen eta Neguri Langile auzoan euria gogor botatzen duenean zer gertatzen den ikertzeko ere diru kopuru bat sartu dute. Horrez gainera, gogoratu, premiazko dekretu baten bitartez, Getxoko alkate Imanol Landak onartutako 20 bat familientzako diru-laguntza, bakoitzak 3.000 bat euro jasoko dituzte euren etxebizitza konpontzen diharduten heinean beste bat errentan hartzeko,



Mila kaltetuk baino gehiagok eman du izena erregistroan

alokairurako edota higiezin agentzien komisiok ordaintzeko. Bestalde, etxebizitza, auto eta saltoki kaltetuentzako diru-laguntzak arautuko dituen dekretua oraindik ez du guztiz adostu, oposizioko alderdien ekarpenak falta direlako.

Alerta egoera iragartzen zuen inolako eguraldi oharririk jaso ez zutela berriro ere gogoratu ostean, Landak uriolen ondorio-

«Etxebizitza, auto eta saltoki kaltetuentzako laguntzak arautuko dituen dekretua momentuz ez dute adostu.»

en datuak eman ditu, esaterako: udaltzaingoei 700 bat laguntza-ekintzari erantzun zieten; kaltetuen erregistroan izena eman dutenen kopurua 1.105 lagunena da; kaleetatik 670 tona hondakin batu ziren eta hondartzetatik 225 tona, horien garbiketa

lanetara, hurrenez hurren, 137.000 eta 65.000 euro bideratu dituzte.

Bestalde, Uraren Euskal Agentziarekin oinarritzako hitzarmena adostu dutela ere iragarri zuen Landak, Gobela erreka bideratzeko proiektua gauzatzeko helburuagaz. ○

Datu batzuk

- **5 milioi euro:** Eraikin eta bestelako eraikuntzak konpontzeko
- **2 milioi euro:** Egitasmo konplexuetarako; saneamendu sarearen eta hustubideen azterketa teknikorako etab.
- **Milioi bat euro:** kaltetutako familien artean banatzeko
- **3.000 euro** larri kaltetutako familia bakoitzari euren etxebizitzak konpondu bitartean, 20 bat familiek jasoko dute
- **1.105 lagun:** kaltetuen erregistroan
- **674 tona** zabor batu zen kaleetan
- **225 tona** zabor batu zen hondartzetan

Aldundiaren BiscayTik

proiektuaren teknologia zentroa **Getxon** eraikiko dute



Irudian, Areetako udal azoka. Egitasmoaren aplikazioak erabiltzeko 2011ra itxaron beharko ei da

Bizkaiko Foru Aldundiak sustatuko duen BiscayTIK (Technologies of Information and Knowledge; euskaraz Informazioaren eta Ezagutzaren Teknologiak, BiscayIET beharko zukeen) egitasmoa AEBetako Microsoft enpresari eman diote lehiaketa publiko bitartez, 17,4 milioi euroan. Getxoko Udalaren laguntzagaz, BiscayTIK egitasmoak aurreikusten dituen teknologia gunea eta zentroa Getxon egongo dira, hurrenez hurren, Areetako udal azokan eta Bake Eder jauregian (Zugatzarte 30.ean). Proiektu berritzailetzat eta aitzindarizat aurkeztu dute eta Aldundiak 45 milioi euro zuzenduko ditu hori gauzatzeko; dirutza horrela banatuko dute: 20 milioi euro egitasmoa garatzeko, 15 milioi euro Bake Eder jauregiko teknologia zentroa egiteko eta beste 10 milioi euro Areetako azoka bota ostean, orube horretan altxatuko duten eraikin berrian gune teknologikoa atontzeko. Halere, eraikin berrian jardunear

jarraitu gura duten merkatarientzako lekua egongo dela aurreratu dute, eta kultur ekintzetarako ere bai. Labur, proiektuaren helburuak dira: administrazioa herritarrengana hurbiltzea, administrazioak batzea eta informazio teknologien esparruan Bizkaia erreferente bihurtzea; hori gauzatzeko 3 ardatz izango lituzke: herritarrentzako doako posta elektronikoa, udaletarako programa informatikoak eta herritarrek izapideak egiteko web ataria, eta Getxoko teknologia gune eta zentroa. Lehenengo 3 urteetan 30-40 lanpostu sortuko ditu, gerora 150 izatea espero dute. Getxoko alkate Imanol Landak adierazi duenez, *“udalerrinako proiektu oso garrantzitsuak izango dira, lanpostuak eta abenatasuna ekarriko baitituzte”*. Halere, proiektu hain berritzailea eta onuragarria ez delako kritikak jaso ditu dagoeneko. ○

Kritikak ezagutzeko:
<http://softwarelibre.deusto.es> edota forbe.blogspot.com/2008/06/16/biscaytik-2/

404.000 EURO BANATUKO DITU UDALAK HAINBAT KIROL TALDEREN ARTEAN

Udalerriko 32 kirol talderen artean 404.270 euro banatuko ditu aurtun Udalak euren jarduerak susta ditzaten. Diru-laguntza jasoko duten taldeen artean daude, besteak beste: Punta Galea Txirindulari elkarte (70.000 euro), Getxo Errugbi taldea (60.000 euro, 2.500 euro andrazkoen errugbia sustatzeko), Getxoko Pilota Eskola (40.000 euro), Arenas futbol taldea (36.000 euro), Getxo Saskibaloia taldea (35.000 euro), Getxo Arraun taldea (20.000 euro), Erromo futbol taldea (18.000 euro), Urpeko ekitaldien kluba (900 euro) eta Xake kluba (600 euro). lazkoagaz alderatuz gero, aurtun diru-laguntza orokorraren kopurua 20.000 euroan handitu du Udalak eta iragarri dutenez, hurrengo urtean klubetan ez dauden edota bakarka diharduten kirolari laguntza zuzenak emango dizkiete.

AUTOBUS ZERBITZUA GURUTZONTZIETAKO ERABILTZAILENTZAT

Doako autobus zerbitzu berezia ipiniko du Getxoko Udalak gurutzontzi handietako bidaiari dirudunak kaitik udalerrira hurbil daitezkeen errazteko. Esperientzia pilotua izango dela adierazi dute Udaletik eta helduko diren 38 gurutzontzietatik hamarri eskainiko diote zerbitzua. Gidari batek lagunduta, udalerrira gainera informazioa emango zaie, bisitatzeko leku erakargarrien berri etab. Areetako kale Nagusian eta Algortako Telletxe kalean izango ditu geltokiak.

I. GETXOKO PADEL IREKIA UZTAILAREN 4TIK 13RA

Getxoko lehenengo Padel irekiko txapelketa antolatuta du Aixerrota Padel klubak Getxoko Udalaren laguntzagaz. Hilaren 4an hasiko dira norgehiagokak 1., 2. eta 3. mailetan, gizonezkoen eta emakumezkoen alorrean eta sari banaketa hilaren 13an egingo da.

Informazio gehiago: www.fvpadel.com

SAN INAZIO
AUTOESKOLA
1951N SORTUA

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Ainguruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

Arasa

Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Samikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

Irati Elorrieta > idazlea

“Zer egin zerbaiten falta dugunean, zerbait aldatu nahi dugunean? Posibleak dira ametsak?”



Irati Elorrieta Agirre (Algorta, 1979)

Burbuilak (Alberdania, 2008) du izenburu Irati Elorrieta algortarraren lehen nobelak. Dagoeneko nobelako bi ipuin saritu dituzte, bata Bilboko Udaleko Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketan eta bestea Julene Azpeitia sariketan. Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen Elorrietak EHU eta Erasmus bekagaz Berlinera joan zen, gaur egun han bizi da. Esku artean beste zerbait ere baduela aitortu digu, baina sortze prozesuan dagoela.

—Ez da zorizkoa nobela Berlinean girotua egotea; esperientzia pertsonaletik badu?

—Esperientzia pertsonaletatik abiatzen dela esan daiteke. Ezagutzen dudana errealitatea edo giroa da abiapuntua: Europako hiri handi bat, Berlin, hainbat jatorri ezberdinetako pertsonaien topaleku bezala. Deserri aukeratu batean bizi diren gazteak (batez ere, baina ez bakarrik), garai ezegonkorrean, eta bila: etxe bila, maitasun bila, izateko modu baten bila. Pertsonaien bizipenak eta sentipenak jende askok ezagutuko dituenak dira: nola lortu harremanak mantentzea distantzian? Zer egin bakarrik sentitzen garenean, zerbaiten falta sentitzen dugunean, zerbait aldatu nahi dugunean? Posibleak al dira gure ametsak?

—Burbuiletan eta deserrian bizi diren pertsonaiak; *burbuilak* horrek zer esangura du? —Irudi bat da eta, zerbait adierazi baino gehiago, iradoki egin dezake irudi batek. Burbuila bat airean egindako eraikuntza da, norabide finkorik izan gabe dantzan dagoena eta hauskorra dena.

—Egunerokotasunak lehen plano hartzen dute, baina gertakizunak baino pertsonaien barme mundua da garrantzitsuena.

—Egunerokotasunak indarra izan dezake. Gauza txikiak ere garrantzitsuak izan daitezke: telefono dei bat, bainu bat aintzira batean, etxe aldaketa, lagun baten bisita. Eguneroko momentu batzuetan, intimitatea edo zerbait magikoa sortzen da... Barne mundua aztoratuta dagoenean (hala dago pertsonaie-

na) egunerokotasunak ematen dituen poztasunak helduleku bihurtzen dira.

—Deserria, euskal literaturak orain arte jorratu duena ez bezalakoa. Hautazko deserria, hautazko herrimina, lagunmina...

—Deserria agertzen da, baina ez egoera politiko batetik ihes egin behar izan dutenen ikuspuntutik, baizik eta deserria sentipen bezala. Deserria geografikoa izan daiteke edo emozionala, edo biak. Eta bai, min egiten du. Protagonistari, Sirari, zulo bat egiten zaio tripan. Agian hortik ere badator bere haurdun geratu nahiaren obsesioa. Baina beste pertsonaia batzuek ez dute horrenbeste sufritzen. Sira Bilbokoa da, eta ez dakit ez ote dugun

«**Pertsonaien bizipenak jende askok ere ezagutuko dituenak dira**»

euskaldunok beste batzuek baino joera handiagoa herrimin hori sentitzeko. Halere, beste herrialdeetako jendeak ere sentitzen du.

—Deserriagaz lotuta, bilaketa prozesuak.

—Bila dabilenari... zerbait falta zaio. Bestela esanda, zerbait nahi du. Desio horrek mugimenduan jartzen gaitu. Pertsonaia batek, Saganek, pentsatu nahi du ametsak direla errealitatearen jatorria, ametsak direla gidatzen gaituztenak. Beste batek, Frankek, film bat egitearekin amesten du, horregatik egiten du borroka, etsi gabe. Oro har, liburuko pertsonaiek garrantzi handia ematen diete beren desioei, ametsi, eta horrek aurrera jarraitzeko indarra ematen die.

—Idazkera zinematografikoa erabili duzu. —Oso zinemazalea naiz. Gainera, grabatu eta montatu ere egiten dut nik neuk. Agian bi gauza hauek eragina dute idaztean. Egia da buruan eszenak ikusten ditudala idazten nagoenean, edo askotan, irudi batetik abiatuta hasten naizela idazten. ○

XXXII. Getxoko Jazzaldia

Emanaldi bat gehiago eta gune berri bat izango ditu aurten jaialdiak **hilaren 7tik 12ra**



Salvador Noneto taldea. Sarrerak salgai daude. Informazioa: www.jazzeuskadi.com edo www.getxo.net

Getxoko Jazzaldiaren 32. ekitaldiak berrikuntza nabarmenak iragarri ditu aurten, esaterako: egun bat lehenago hasiko da jaialdia, hilaren 7an, emanaldi bereziagaz: The Manhattan Transfer sona handiko ahots-taldearen kontzertuagaz, hain zuzen. Egitarauari jarraituz, ohi legez, talde nagusien emanaldien aurretik Talde Lehiaketakoek jardungo dute eta, hurrenez hurren, hau da iragarrita dagoena: Tutusaus Septet eta Iñaki Salvador Noneto (hilak 8), Kristian Brink Quartet eta John McLaughlin & 4th Dimension (hilak 9), Ondrej Pivec Organic Qt. eta Avishai Cohen Trio (hilak 10), Flux eta Arturo Sandoval Sextet (hilak 11), eta azken egunean

Talde Lehiaketako irabazlea eta Archie Shepp Qt. Kontzertu horiek guztiak Bihotz Alai plazan izango dira 21:30ean. Bestalde, Getxo Antzokiko Plazan (19:30) Hirugarren Milurteko taldeek jardungo dute: Javier Pereiro Qt. (hilak 8), Citric (hilak 9), Sabina Witt Project (hilak 10), Jeronimo Martin Trio (hilak 11) eta Pierre Anckaert Trio (hilak 12). Eta dixie musikari begirako gune berrian, Algortako Geltoki plazan (18:00) hurrengoek jardungo dute: New Orleans Blue Stompers (hilak 8), Dr. Macaroni Latin Jazz Brass (hilak 9), The Missing Stompers (hilak 10), Broken Brother Brass Band (hilak 11) eta Mac Jeara's Band (hilak 12). ○

AZKORRIK BAKARRIK JASOKO DU BANDERA URDINA AURTEN

Azkorri-Gorrondatxe hondartzak bakarrik izango du aurtengo udan Europako Ingurumen Hezkuntzaren eta Kontsumitzailearen Elkartek ematen duen bandera urdina. Iaz Arrigunagako eta Ereagako hondartzek ere izan zuten, baina oraingoan hondartza horien uren kalitatea "ona bada ere, ez da bikaina" eta horregatik ez du eskatu Getxoko Udalak horientzako bandera urdina. Inguruneke zinegotzi Keltse Eigurenak azaldu zuenez, bi hondartza horien uren kalitatea bikaina ez izatearen "arrazoia eroritako ekaitzek eta ur-jauziekin eragindako zikinkeria izan zen".

UDAKO ORDUTEGIA DUTE DAGOENeko TURISMO BULEGOEK

Udal Turismo Bulegoak ordutegia zabaldu du udari begira. Irailaren 15era arte Ereagako bulego nagusiaren eta Aldi Baterako Turismo Informazio Guneen (ABTIG) ordutegia hurrengoak izango da: aste guztian zehar (jaiegunak barne) 10:00etatik 20:00etara; Bizkaiko Zubiko ABTIGak 10:30-14:30 eta 16:00-20:00. Bestalde, harrera eta informazio zerbiztu berezia eskainiko dute Jazzaldian eta San Lorenzo Azokan (San Nikolas plazan), baita Joku Atlantikoetan eta Folk jaialdian (Areetako Geltoki plazan) ere.

JOKO ETA LETREN TERRAZAK ZABALIK

Udako Liburutegiak egitasmoaren barruan hilaren 1etik abuztuaren 29ra arte zabalik egongo dira Joko eta Letren Terrazak Areetako Geltokian, Algortako Geltokian eta Andra Mariko Sarri plazan, hurrengo ordutegian: astelehenerik ostiralera 12:00-14:00 eta 17:30-20:30. Horrez gainera, astelehenerik eskulan lantegiak egongo dira, martitzenetan antzinako jokoak, eguaztenetan irakurketa bultzatzeko lantegia, eguaztenetan baretzeko, elkarri laguntzeko eta abarreko jokoak eta barikuetan elkarri laguntzeko mahai jokoak.



Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Akelarreak 10 urte

Ez dira sorginen istorio zaharrak, akelarrea bizirik mantentzen dute 24ko gau magikoan

Hamar urte dira txosnetan San Juan gaueko akelarrea egiten dutela. Marik, lamiak, sorginek, aztiak, herritarrek eta akerrak ere herriko festak eta udako solstizioa ospatu zituzten ekainaren 23an, gaueko 12:00etan, dantzaren eta galtzagorrien txantxen artean.

Mendibile Gaztetxean sortu zen Akelarrea duela hamar urte, baina gaur egun, Maritxu Teilagorri Txosna Batzordeak antolatzen du eta txosna gunean bertan egiten dute akelarrea udako ekinozioarekin batera, ekainaren 23tik 24rako gauerdian, jai herriko eta parte har-tailea egiteko xedearekin.

Etenik gabe heldu da aurtengo zitara, San Juan jaietako tradizio bihurtuta. Betiko legez, herriko gazteek parte hartu dute akelarrean. Mariaren deia erantzunez, hara bildu dira lamiak, sorginak, akerra, aztiak eta herritarrek. Baina, oraingoan, beste urte batzuetan ez bezala, janaria, edaria eta loreak eraman dizkiote. Galtzagorriak ere hurbildu dira akelar-rera, gainontzeko lagunak xixatzeko gogoz.

“Gabon denoi” esan die Marik ikusleei, “mila esker gau magiko hau gugaz konpartit-zeagatik”. Anbotoko koba utzi du gau batez. Sorgin Nagusiak edabe magikoa prestatu du eta sua piztu du akerrak. Dantzan eta saltoka



Urteko gaurik laburrenean ospatzen dute Akelarrea Leioan

hasi dira jadanik lagun guztiak urteko gaurik laburrenean, eguzkia, ura eta barazkiak irudikatzen dituen su horren inguruan.

Ohitura zaharrak jarraituz, gaitzak eta pertsonaia gaiztoak uxatzeko errietoarekin hasi

«Urteko gaurik laburrenean, suaren bueltan egin dute dantza, gaitzak uxatu»

dira. Aztiak dei egin dio agorrari, akerbeltza- ren barruan sar dadin. Akerra zutitu eta gainontzeko pertsonaiekin egin du dantzan...

Baina denek ez ei dituzte gura euskal ohi-

turak eta inkisizioaren baitan iritsi dira akelar-rearekin bukatu asmoz. Horretarako prest ez daude, ordea, lamiak, sorginak eta gainontze-ko lagunak. Txistua entzuten hasi da eta bana-koa dantzatzeko prestatu dira. Horrela, sutan gaixotasunak eta gaitzak erre dituzten legez, inkisizioa bota dute akelarretik kanpora.

Hori poztasuna! Ospatu beharreko garai-pena. Dantzan lotu dira berriro ere, errome-riagaz batera. Gaua laburra da eta aprobetxatu behar. Eguzkia gertu dago eta hark harrapatu aurretik, doazela gozatzera! Eta urte askoan izan dadila! ○

Imanol, Alfonso eta Gorka > Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoak

“Sekretua da ikusleak txibatoak izatea; bestela, ez dugu ezer egin ahalko”

Ganorabakoak dira Kuko eta Truko, nahikoa lan ematen diote Bolenwaiderri. Imanol Rodríguez, Alfonso Díez eta Gorka Mínguez aspaldi dabilta elkarrekin paila-zoen ikuskizunagaz barre eragi-ten. Leioztarrak dira batzuk eta jaietan egin dute ikuskizuna.

—Noiztik zabiltzate jendeari algarak atera guran?

—Zortzi urte baino gehiago daramagu elka-rrekin Kuko, Truko eta Bolenwaider. Le-hendik ere beste gauza batzuk egiten genituen. Pailazoen ikuskizunak ziren baina, Kuko, Truko eta Bolenwaider gisa, 2.000. urtean hasi ginen.

—Eta non dago gakoa jendeari irria atera-razteko?

—Ez dakit ba. Seguruenez gakoa izango da gu-geu ondo pasatzea. Horrela bada, ondo pasa-tzen badugu, jendeak nabaritutako du, gustura egongo da eta ondo pasatuko du. Logikoa da. Izan ere, norbait ondo pasatzen ikusten badu-zu, zuk ere ondo pasako duzu. Gure ustez horixe da trukoa, ikusleakaz jolastu eta kon-plizitatea sortu baina, batez ere, sekretua zera da, ikusleak txibatoak izan behar dutela, bes-tela, ez dugu ezer egin ahalko.

—Errazagoa da umeakaz lan egitea?

—Helduakaz baino? Ez dakit... Agian berdi-



Imanol Rodríguez, Alfonso Díez eta Gorka Mínguez

na izango da. Ikusle bakoitzak dibertitzeko duen gaitasunaren eta erraztasunaren arabera ere bada baina, funtsean, gauza berbera da hel-duen edo umeen aurrean antzeztea. Kontua da gure lana ondo betetzea eta harekin goza-tzea; soilik horrela erakarriko duzu ikuslea. Azken batean, ikuskizuna da eta gauza bera eman behar diegu helduei eta haurrei.

—Zergatik zarete pailazo?

—Ene! Galdera ona da hori! Zergatik gara pailazo? Ba, seguruenez horrela jaio ginelako izango da. Pixka bat pailazo jaio ginen eta gus-

tuko dugu astokeriak eta pailazokeriak egitea jendearen aurrean.

—Udan nondik ibiliko zarete? Zuen abentu-rak ikusteko aukera egongo da?

—Bai, noski. Euskal Herri osotik ibiliko gara, betiko lez. Batez ere, herrietako jaietan egiten dugu gure ikuskizuna, orduan umeentzako kontu asko antolatzen baitute. Oraindik ez dakigu zehazki non egongo garen, toki batzuk ziurtatuta ditugu eta beste batzuk ez, beraz... zure auzoan bertan egon gintezke edozein egunetan! ○

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

THE BEST
UNE-UNEKO ERROTULOAK

ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Erandioko Musika Eskola**Ikasturte amaierako emanaldia eta orkestra berriaren aurkezpen kontzertua**

Ekainaren 18, 19 eta 20an kurtso amaierako emanaldia eskaini zuten Musika Eskolako ikasleek. Kontzertu guztien artean, 19koa izan zen bereziena; izan ere, Erandioko Musika Eskolako Orkestra berriaren aurkezpen kontzertua egin zuten egun horretan. Fuensanta Figuroa arduratuko da musikari gazteak zuzentzeaz. Figuroa bera eta Edurne Zorrozuak eskolako zuzendariak proiektu honen berri eman digute.

—Zergatik erabaki zenuten orkestra berria sortzea?

—Erandioko alkateak gogoia zuen aspalditik udal orkestra sortzeko. Bestalde, Fuensanta Figuroa kalitate handiko orkestra zuzendaria da eta, gaur egun, Erandioko Musika Eskolan dago lanean. Hori aprobetxatuz, lanean hasi ginen abendu hasieran. Jendea bildu eta martxoan lehenengo entseguak egin genituen. —Zenbat jende zaudete?

—Momentu honetan, 16 urtetik gorako 25 neska-mutil daude, eskolako ikasleak denak. Beraiekin batera, Fuensanta Figuroa zuzendaria. Hasteko kopuru polita da, baina jende gehiago biltzeko asmoa daukagu. Soka, haizea, akordeoiak.... ins-



Edurne Zorrozuak zuzentzen duen akordeoi orkestrak jo zuen kurtso amaierako emanaldian

trumentu oso ezberdinak bildu ditugu. Gainera, tarteka gitarra edo beste musika tresnaren bat sartuko dugu. Gure asmoa orkestra sinfonikoa osatzea da, baina horretarako denbora behar dugu.

—Emanaldiren bat izango duzue datozen hilabeteotan?

—Eskolatik kanpo jo gura dugu. Egia esan, oraindik kontzertu bat besterik ez dugu zehaztu; Barakaldon izango da, abenduan. Dena den, gogotsu gaude eta ziur gaude gehiago lortuko ditugula.

—Zelan joan zen aurkezpen kontzertua?

—Oso pozik gelditu ginen egindako lanarekin. Gainera, orain dela lau hilabete hasi ginela kontuan hartuta oraindik

«Orkestra berritik abiatuta, sinfonikoa sortu gura dugu etorkizun batean»

gehiago. Beethoven eta beste zenbait autoreren piezak jo genituen, musika klasikoa dena. Datorren urterako erreperorioa handitu gura dugu. ○

Elkartruke programa

martxan jarri du Udalak **Irlanda eta Frantziako** gazteekin esperientziak konpartitzeko



Irlanda eta Frantziako herriein egingo da elkartrukea. Argazkian, Irlandako paraje bat

Gureak ez diren kulturak eta herriak ezagutzea oso esperientzia aberasgarria izan ohi da. Gainera, gure kultura munduan zehar zabaltzeko balio digu. Ideia honetatik abiatuta, elkartruke programa antolatu du Erandioko Gazteria, Kirola eta Garpenerako Lankidetzak Sailak. Irailaren 1etik 7ra, Irlandara eta Frantziara bidaiatzeko aukera izango dute 15 eta 17 urte bitarteko 10 gaztek. Beste herrialdeetako gazteekin esperientziak, ezagutzak eta ikasketak konpartitzea eta hizkuntza ezberdinen erabilera eta ikasketak bultzatzea dira, besteak beste, egitasmo honen helburuak.

Ekainaren 30ean, goizeko 11etan egingo da zozketa izena eman dutenen artean. Ondoren, uztailaren 7an, lehenengo bilera egingo dute. Ingelesaren ezagutza nahikoa izatea, elkartrukeetan aurretikako esperientzia ez izatea eta motibatuta egotea eskatuko zaie parte hartzaileei. Erandion bertan, Irlandan zein Frantzian hainbat ekintzatan parte hartzeko aukera izango dute. Antolatzaileek esperientzia paregabea bizitzeko aukera dela uste dute eta, bide batez, bereizketa modu guztiak ezabatu eta gizarte maila guztietan berdintasuna sustatzeko balio izango du. ○

SAN TRIFON JAIAK UZTAILAREN 3TIK 6RA

Arriaga auzoan San Trifon jaiak ospatuko dituzte uztailaren 3tik 6ra. Ohi bezala, pregoiagaz hasiko dira, hilaren 3an arratsaldeko 6etan. Ondoren, Altzaga abesbatzaren emanaldia izango da. Hurrengo egunetan, mus txapelketa eta Haitzama taldearen kontzertua izango dira ekintza nagusiak. Uztailaren 5ean, haurrentzako jolasekin, idi-probekin eta dantza lehiaketarekin gozatu ahal izango dute erandioztarrek. Ospakizunei amaiera emateko, marmitako txapelketa antolatu dute uztailaren 6rako.

URIOLETAKO KALTEAK UDALETXEAN TRAMITA DAITEZKE

Ekain hasieran izandako uriolek kaltetutakoek Erandioko Udal bulegoetara jo dezakete laguntzak eskatzeko. Ekainaren 16an zabaldu zuten arreta-bulegoa eta hilabetez egongo da zabalik astelehenetik barikura, goizeko 9:00etatik 13:00etara. Kaltetuek ez dute Foru Aldundira jo behar izango; izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak Erandioko Udalaren esku utzi du uriolek kaltetutakoek laguntza emateko tramiteen kudeaketa. Kaltetuen arretarako bulegoan bestelako laguntzen berri ere emango zaie herritarrei.

UDAKO IKASTAROAK GAZTEENTZAT

Apainketa eta sukaldaritza ikastaroak antolatu ditu Udalak uztailerako. Hilaren 4an hasiko da sukaldaritza ikastaroa eta, beste gauza askoren artean, pintxoak, teak eta koktelak prestatzen ikasteko aukera izango dute parte hartzaileek. Hiru egun beranduago, uztailaren 7an, apainketa ikastaroa egingo dute. Honetan, kutzak, pitxarrak, esekilekuak eta edalontzi-azpikoak dekoratzen irakatsiko dute. Talde bakoitzean 12 lagun egongo dira gehien jota eta ikastaroa hasi baino hiru egun lehenago eman beharko da izena. Deskontu bereziak egongo dira.

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

**Basolanak**

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitatarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Arazoei agur... **902 54 08 54**



www.arlan.biz

LARRABASTERRAKO INFORMAZIO PUNTUA

Uda osoan zehar zabalik egongo da Larrabasterrako metro geltoki ondoan (Loiola Ander Deuna Kalea) dagoen Informazio Gunea. Irailaren 14a arte emango ditu bere zerbitzuak goizeko 9etatik 14etara eta arratsaldeko 16etatik 19etara. Bertan, Sopelako turismo eskaintzari, hondartzen egoerari zein garraio publikoari buruzko informazioa aurkitu ahal izango da. Sopelako Informazio Bulegoa ere zabalik egongo da eta ordutegi bera izango du.

ZIPIRIÑEKO JOLASTOKIA ITXITA IRAILAREN 8A ARTE

Zipiriñe Eskolan egiten ari diren lanak direla-eta, ikastetxeko jolastokia itxita egongo da irailaren 8a arte. Sopelako Udalak barkamena eskatu nahi die alde zurretik Sopelako biztanleei.

ABSOLBITU DITUZTE EKAINAREN 11AN EPAITUTAKO GAZTEAK

Usurpazio delitua egotzita, ekainaren 11n epaitu zituzten Sopela eta Urdulizko sei gazteak absolbitu ditu epaileak. Sei gazteen aurkako akusazioa atzera botatzea erabaki du fiskalak, ezertxo ere frogatzerik ez zuela ikusita. 2400 euroko isuna eskatzen zuen fiskalak gazte bakoitzarentzat. Abokatuek adierazitakoaren arabera, jada 3000 euro baino gehiago ordaindu dituzte horietako batzuek eta, beraz, dirua itzuli beharko diete.

HONDARTZARAKO HAUTSONTZIAK

Udan, Mankomunitateko Kontsumo (OMIC) eta Ingurugiro (Agenda 21) departamentuek hondartzan erabiltzeko hautsontziak banatuko dituzte. Izan ere, zigarro-mutxikinak eta hausterrea, ingurunea gehien kutsatzen duten elementuetako bi dira.

Ekinbide Globalerako Plana: alda itzazu eguneroko jokabideak eta lagun ezazu ingurumenari egindako kaltea murrizten



Izena emateko www.udalsarea21.net webgunean erregistratu behar da

Mankomunitateak, PNUMAk (Ingurumenerako Nazio Batuen Erakundea) UNESCOren laguntzarekin martxan jarritako Ekinbide Globalerako Planean (GAP) parte hartuko duten boluntarioak bilatzeko kanpaina abiarazi du. GAP-en helburua pertsonen bizi baldintzak hobetzea eta ingurumenean sortzen dugun eragina murriztea da; horretarako, etxean egin daitezkeen hainbat ekintza hartu ditu kontuan. Bost arlo nagusi landuko ditu: ura, energia, garraioa, etxeko hondakinak eta eguneroko erosketak. Horien

inguruan lan egiteko hainbat eskuliburu jarri dituzte eskura GAP programako bultzatzaileek. Eskuliburuak erabat praktikoa dira eta galdetegi batekin batera doaz. Proposatutako aldaketak etxean probatu eta ondorioak ebaluatu beharko dituzte parte hartzaileak.

Mankomunitateak familia boluntarioak nahi ditu. Izena emateko www.udalsarea21.net web orrian erregistratu behar dira. Parte hartzaileen artean hainbat sari zozketatuko dituzte. Kanpaina irailaren 14an amaituko da. ○

Jaiak

Karmengo Jaiak ospatuko dituzte Larrabasterran uztailaren 16tik 20ra



Uztailaren 16an izango da Karmengo jaietako egun handia

Dagoeneko bete-betean sartu gara uda giroan (bazen garaia) eta honekin batera datorren Uribe Kostako jaien "tourrean". Sopelako bizilagunek San Pedro jaiak izan zituzten ekaina amaieran; hala ere, ez pentsa euren txanda amaitu denik. Uztailaren 16tik 19ra Karmengo Jaiak ospatuko dituzte Larrabasterra auzoan. Azken urteotan gertatu den bezala, Urgitxeta enparantzan eta Urko kiroldegiko aparkalekuan izango dira ekintza gehienak.

Sopelako Udalak eta Txosna Batzordeko lagunek gogor egin dute lan adin guztietako lagunentzat aproposa izango den egitaraua prestatzeko. Egun handiarekin, Karmen Egunarekin hasiko dira ospakizunak; honetan, musika izango da nagusi. Lagun Artea Jubilatuen Abesbatza, Uribe-Bazterra Musika Banda, habanerak Bartzelonako Zarza taldearekin... doinu ezberdinak nahastuko dira. Eguenean, uztailek 17, umeentzako puzgarriek, ludotekak eta jumpingak eman-

go diote hasiera egunari goizeko 11etan. Gau partean aldiz, Los 5 Bilbainos taldearekin eta Trikizo erromeriaren doinuekin dantzatu ahal izango da. Hurrengo egunean, arteak kaleak hartuko ditu. Zirko tailerra Azulkillas konpainiarekin, kale antzerkia Gansoren eskutik eta Las Fellini taldearen ikuskizuna izango dira goizeko 11etan, arratsaldeko 8:30ean eta gaueko 11etan, hurrenez

«Urgitxeta enparantzan eta txosna gunean egingo dira ekintza gehienak»

hurren. Hori amaitutakoan, Orugha, Esne Beltza eta Deskontrol taldeen musika emanaldiarekin gozatu ahal izango da. Gauza on guztiek bezala, jaiak ere bere amaiera dute. Marmitako lehiaketa eta Txosna batzordeak antolatutako herri-bazkaria izango dira egitaraua ixtearen arduradunak. ○

**LAIKAK
Taberna**

Bentatu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34


DIDAK hamilton IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



RIPOLIN

BONDEX

DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

BADAOZ KULTUR JARDUNALDIAK

Maiatzean hasi ziren Kultur Jardunaldiak eta hilabete bi hauetan hitzaldi, kontzertu, kirol ikuskizun eta dantzaldiekin gozatu ahal izan dute berangoztarrek. Baina, gauza guztiak bezala, Kultur Jardunaldiek bere amaiera dute. Uztailaren 4an esango digute agur, datorren urtera arte. Bitartean, hiru hitzordu garrantzitsu izango ditugu. Lehenengoa, ekainaren 30ean Beti Gazte abesbatzarekin, Jubilatuen Etxean arratsaldeko 18etan. Uztailaren 3an, "Alucina" aitiba-amama eta bilobentzako magia ikuskizuna izango da, arratsaldeko 18etan, Berangoetako Kultur Etxean. Hurrengo egunean, San Mames ezagutzeko ibilaldia antolatu dute Jubilatuen Etxeok.

SORGINKERIAZKO UDA BIZI EZAZU IPARRALDEAN

Uztailaren 2tik 4ra abentura magikoa biziko dute 12-18 urte bitarteko Berangoko gazteek, Donibane Lohitzuneko Itsas Mendi kanpinean. *Sorginkeriazko Uda* udaleku itxia antolatu du kultur etxeak. Kanpadendak eta motxilak bizkarrean hartuta Ipar Euskal Herrira hurbilduko dira; bertan, Zugarramurdiko kobak eta Euskal Euskomuseoa bisitatu eta rafting-a egiteko eta hondartzan egoteko aukera izango dute.

UDA GAZTEA UDALEKUA UZTAILAREN 7TIK 24RA

Sorginkeriaren lurraldetik bueltatu bezain laster, Udalak urtero antolatzen dituen Uda Gaztea udaleku irekietan parte hartzeko aukera izango dute gazteek. Uztailaren 7tik 24rako arratsaldeetan tailerretan, kirol ekintzetan eta jolasetan parte hartu ahal izango dute. "Sabel irristakorra" lehiaketa, barreterapia tailerra, burmuin maratoia, teleleberri telenobela digital tailerra, zorabiozko ginkana... oso ekintza originalak prestatu dituzte. Badator Uda Gaztea!

XIII. Txakolin Eguna

ospatuko dute Berangoko txakolingileek ekainaren 29an frontoi inguruan



Argazkian, Berangoko txakolingileak

Ardozaleak gara euskaldunok, ez da gauza berria hori. Poteoan zein bazkari edo afarie-tan, ondo baino hobeto sartzen zaigu tragoa. Baina ardo gozoa dastatu ahal izateko, ekoi-tzi behar da lehenengo. Ondo dakite hori Berangoko txakolingileek. Gaur egun, ardo zuri gozoa egiten duten 21 txakolingile dau-de Berangon; horiei laguntzeko, 21 txakolin-laguntzaile. Azken hauek dira, hain zuzen ere, orain dela zortzi urte Berangoko Txakolin Eguna antolatzen hasi zirenak.

Zoritxarrez, eguraldiak ez du gehiegi lagundu aurten eta uzta nahiko pobrea izan da kantitateari dagokionean. Hala ere, kali-

tate handiko txakolina egitea lortu dute eta, aurreko urteetan bezala, 650 botila inguru banatuko dituzte txakolingileek herritarren artean. Honekin batera, txorizoa eta txitxi burrunzia ere prestatuko dute.

Goizeko 12etan hasiko da jaia frontoi aurrean eta arratsaldeko hirurak arte luzatuko da. Trikitilari eta txistularien musika presente egongo da goiz osoan zehar. Urtero diseina-tzen duten kopa berezia 4 euroan salduko da aurten eta, horrelako bat eskuratutakoan, nahi beste edan ahal izango dute hurbiltzen direnek. Jaialdiari amaiera emateko, txakolin-gileen artean sariak banatuko dituzte. ○

Gorliz Irratia > *Ondas de la Kosta* udako irratsaio berezia

"Era askotako gaiak jorratuko dituen magazina izango da udakoa"



Sheila Garcia, *Ondas de la Kosta* saioaren lantaldeko kidea

Datorren urtean 20 urte beteko ditu Gorliz Irratiak. Azken lau urteotan, Gorliz Irratia irabazi asmorik gabeko elkarteak kudeatu du komunikabidea, nahiz eta egi-tasmoa aurrera eramateko beharrezkoa duten materiala erosteko dirua Udalak ematen dien. Herriko elkarteetako lagunek hartzen dute parte irratiaren funtzio-namenduan. Gaur egun, hainbat gai lan-tzen dituzten izaera ezberdineko 14 irratsaio dituzte martxan. Hala ere, atek zabalik daude ideia berriak eskaini edo mikrofono aurrean jarri nahi dutenentzat.

Udara begira ekimen berria abian ipin-tzea beharrezkoa zela ikusi zuten Gorliz Irratiko lagunek. Hori dela eta, uztaila, abuztua eta irailean emitituko den magazi-na ekoiztea erabaki zuten: "2007ko udan frogatxiki bat egin genuen eta ondo irten zen; horregatik, aurrera egitea erabaki dugu", esan digu Txema Aguado irratiako koordinatzaileak. Sheila Garcia, Alain Lejarragak, Jon

Gomezek eta Iraide Talaberek zuzenduko dute *Ondas de la Kosta* saioa astelehenetik barikurako goizetan. Hondartzetako infor-mazioa, trafikoa, eskualdeko albisteak, kirolak, Uribe Kostako agenda kulturala, jaien jarraipen berezia, elkarrizketak... denetarik landuko dute. Gainera, telefonoak zabalik egongo dira, azken orduko albiste bat eman

«Astelehenetik barikura, goizez, entzun ahal izango da udako saio berezia»

edo abesti bat eskaini nahi duenentzat. Unitate mugikorra jairik jai eta ekitaldiz ekitaldi joango da, informazioa bertatik bertara jasotzeko.

Ekainean zehar, estudioa berritzen ibili dira: "Kalitatezko irratia izateko, azpiegitura behar den bezala eduki nahi dugu". Gorlizko herriarentzako irratia izateko, Uribe Kosta osorako irratia izatera pasatu nahi dute etor-kizunean. ○



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASARTENA



URDULIZ

T.: 946 761 128 / www.basartena.com

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



VIEJO CAFE

kopak eta
giro jatorra

Alangobarrí, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA



AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86



FRONTOIA ETA KULTUR GUNEA BARRIKAN

Urtea amaitu baino lehen, frontoi berria eta kafetegia, ikasketa gela, liburategia eta erabilera anitzeko gelak bilduko dituen eraikin publikoa eraikitzen hasiko dira Barrikako Udaletxe enparantzan. Honekin, plaza berregituratu eta herriaren gune nagusi bihurtu nahi du Udalak. Gaur egun, udaletxean bertan burutzen dira kultur etxeak antolatutako ekintzetako asko, lokalen eskasia dela eta. Honez gain, Goierrri auzoko eskolak eraberrituko dituzte; bertan emakumeentzako gunea eta Zaharren Etxea kokatuko dituzte.

TXAKURRAK HEZTEKO IKASTAROA IRAILEAN

Uribe Kostako Mankomunitateak antolatu duen txakurrak hezteko ikastaroan izena emateko epea zabalik egongo da uztailaren 31 arte. Barrika, Lemoiz, Gorliz, Berango, Sopela, Plentzia eta Urdulizko herrietan erroldatuta dauden txakurren jabeek har dezakete parte. Ikastaroa doakoa izango da eta Barakaldoko MSUK-aren txakur aterpean burutuko da iraileko zapatuetan, goizeko 11:30etik 13:30era arte.

UDAKO EUSKARAREN EGUNA GORLIZEN

Ekainaren 28an Udako Euskararen Eguna ospatuko dute gorliztarrek Iberrebarrin. Goizeko 11:30ean hasiko dira ekintzak. Herri kirolak, puzgarriak, mitologia tailerra, pailazoak eta disko gaua izango dira.

LEMOIZ

Lemoizko eskola Suedia eta Turkiarekin elkarlanean



Suediako eta Turkiako irakasleak Begoña Iturgaitzekin, Lemoizera maiatzean egindako bisitan

Eskola txikia da Lemoizkoa, 2 eta 8 urte bitarteko 44 ikasle izan ditu azken ikasturtean; bost urte daramatza martxan. 2007an beste herrialdeetako eskolekin elkarlan proiektu bat aurrera eramateko aukera aurkeztu zitzaizen eta interesgarria izan zitekeela-koan, onartu egin zuten. Suedia eta Turkiako bi eskolekin harremanetan daude orduanik.

Hezkuntza esperientzien trukaketa egitea da egitasmoaren helburu nagusia; honez gain, hizkuntzak (ama hizkuntza zein bigarren hizkuntza) ikasteko bide ezberdinen inguruko

gogoeta egin gura dute. Horretarako, irakasleek trukea egiten dabilta: Lemoizko irakasleak Suediara eta Turkiara doaz eta eskoletako funtzionamenduan parte hartzen dute astebetean. Bertako irakasleak ere gurean egon dira. Orain arte egindakoarekin oso pozik dago Begoña Iturgaitz, proiektuaren koordinatzailea: *“Asko ikasten ari gara; Suediako haur hezkuntza, adibidez, exeko bizitzaren jarnaipea da. Kulturartekotasuna eta hizkuntzen ikaskuntza praktikoa lantzeko balio digu”*. ◊

Ekai. 28 - uzt. 14

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ZINEMA

GETXO

► **Gaurik laburrena.** Algortako Bihotz Alai plaza, 22:00. Doan.

Uztailak 14. Eider Kadiano, Borja Gonzalez, Pablo Llorens, Borja Cobeaga, Haritz Zubillaga, Samuel Ortí, Jorge Dorado, Arturo Ruz eta Sergio Barrejón.

Uztailak 15. Euskaraz. Koldo Almandoz, Izebene Oñederra, Eneko Dorronsoro, Asier Urbieto, Asier Mendoza, Iban del Campo, Erlantz Astorkiza, Iñigo Kintana eta Iban Ayesta.

MUSIKA

GETXO

► **XXXII. Europar jazzaldia** Kontzertu hauen guztien aurretik lehiari egongo diren taldeek joko dute. Bihotz Alai plaza, 21:30:

Uztailak 7. The Manhattan Transfer. Sarrera: 25-20 euro

Uztailak 8. Iñaki Salvador Trio. Sarrera: 10-12 euro.

Uztailak 9. John McLaughlin & 4th Dimension. Sarrera 30-24 euro.

Uztailak 10. Avishai Cohen Trio. Sarrera 10-12 euro.

Uztailak 11. Arturo Sandoval Sextet. Sarrera: 25-20 euro.

Uztailak 12. Archie Sheep Quartet. Sarrera: 15-12 euro.

► Musika ikuskizuna

Bihotz Alai plazan, 21:30. Doan. Tirri-tarra fanfarrea, Itxartu abesbatza eta Sotto Voce orkestra.

ERANDIO

► **Dantzaldiak plazetan.**



► **Jardunaldiak**

Plentzia hiriko udal ordenantzen 500. urteurrena

Efemeride handi hau ospatzeko hitzaldi sorta antolatu dute Plentzian: hilaren 8an, 19:00etan Sergio Ramirezek “Nacimiento y desarrollo de Plentzia en la Edad Media” hitzaldia eskainiko du; hilaren 9an 20:00etan, M. Pilar Roperok “Medio físico de Plentzia”; hilaren 10ean 20:00etan, Javier Enriquezek “Las ordenanzas municipales de Plentzia” eta hilaren 11n 19:30ean, Jose Luis Casadok “Tipologías navales cantábricas en 1500”. Jardunaldiok amaitzeko, hilaren 12an 13:00ean, bisitaldi gidatua antolatu dute Plentziako gune historiko-artistikora.

• **Non:** Goñi Portal • **Noiz:** uztailaren 8tik 12ra

Galea orkestra. Ekainak 29, Josu Murueta plaza, 18:00-21:00.

jaialdia. Algortako Bihotz Alai plazan, 22:00. Doan. Hilaren 21, 22 eta 23an Irlanda, Eslovakia eta Euskal Herriko taldeak.

BESTEAK

GETXO

► **Bertso jaialdi mundiala.** Algortako Bihotz Alai plaza, 22:00. Doan. Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Fredi Paya, Xabi Paya, Amets Arzallus eta Sustrai Colina.

► **XXIV. Nazioarteko Folklore**

► **Udako liburutegiak, joko eta letren terrazak.** Areetako geltokia, Algortako geltokia eta Andra Mari Sarri plazetan abuztuaren 29ra arte. Goizez, 12:00-14:00 eta arratsaldean, 17:30-20:30.

ERANDIO

► **Kurtso amaiera.** Antzerki lantegietan ibiliko

ikasleek emanaldia. Josu Murueta, 18:00. Doan.

► Jaiak Erandion.

Kukularrak. Ekainak 27-29. San Trifon. Uztailak 3-6. San Kristobal. Uztailak 10-13. Asua. Uztailak 18-20. San Lonrentzo. Abuztuak 6-10. Andra Mari. Abuztuak 15-17. Santi Mami. Abuztuak 16-17. San Agustin. Ekainak 27-31. Enekuri. Irailak 5-7. Lutxana. Irailak 12-14.

► Tiro lehiaketak.

Goierri Martu ehiza eta olinpiar tiroa elkarrekin antolatuta Akrlandan

Uztailak 5. San Kristobal sari nagusia.

Abuztuak 9. San Lorentzo sari nagusia.

Abuztuak 30. San Lorenzo Agustin sari nagusia.

LEIOA

► **Aterpe gazte bulegoa, udako programak.** Argibide gehiago KulturLeioan.

Ostegun gazteak, 18 urtetik gorakoentzat.

Uztailak 3. 11:30-13:30. Entsalada deberdinak egiten ikasi.

Uztailak 10. 10:00-17:00. Txangoa, espeleologia Baltzolan.

Uztailak 17. Mendibile baserrira bisita eta txakolin dastaketa.

Kolonia irekiak. 14 eta 17 urte artekoentzat. Ekainak 30-uztailak 11. Jarduerak egunero 10:00-14:00.

PLENTZIA

► **Hitzaldia, Atapuerca eta gu.** Javier Quevedoren hitzaldia. Aurretik, “El ser. Materia-vida-espíritu” liburuaren aurkezpena. Uztailak 4, 19:30 Goñi Portalean.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



III. Mintza eguna

Eguzki amandreak ere ez zuen berbalagun edota mintzalagunen jaia galdu gura izan, eta ekainaren 14an Getxon antolatu zen III. Mintza Egunera hurbildutako 230 lagun inguruk jai giro ederrean igaro zuten eguna: Portu Zaharreko ongietorria, udalerria ezagutzeko bisita gidatua, bertsolarien harrera, kalejira dibertigarria, bazkari goxoa, dantzaldia... Euskal Herriko hamaika txokotatik, baita Argentina eta Australiatik ere, euskara erabiltzeko gogoz dabiltzanen jaia izan zen, euskaraz egin eta bizitzeko asmoagaz; denoi erakutsiz dabilen harriari ez zaiola goroldiorik lotzen.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Ur-jauzi artifiziala

Irudia hauxe gure helbide elektronikora heldu zaigu, gutxi gorabehera ekaina hasierakoa dela ondorioztatu dugu eta egileak begia erne zuela eta momentua ondo aukeratu zuela badakigu. Diotenez, urak beti aurkitzen du bidea. Onartu beharreko egia da Natura maitagarri bezain mingarria dela, eder bezain menderagaitz. Aspaldiko kontuak dira horiek, herri sinesmenak, baina ohi legez betirako baliagarriak.

[berbetan]

Euskaldunon Egunkaria zuzendu zuen lehenik eta Berria ondoren. Euskal prentsaren aurpegi ezagunenetakoa da Martxelo Otamendi tolosarra. Azken asteotan Berriaren bosgarren urtemuga ospatu dute Euskal Herri osoan zehar, eskualdez eskualde ekitaldiak eginez. Erronka berriei ekiteko garaia iritsi zaio beraz, baina ez prentsa arloari dagokionez soilik. Laster epaituko dituzte bera eta Euskaldunon Egunkariako hainbat langile Madrilen, egunkariak ETA erakundearekin zerikusia zuelakoan. Kezkatuta dago Otamendi hori dela eta, baina euskarazko komunikazioak egin beharrekoak argi dauzka.

Martxelo Otamendi

Erronka zaharrak dira desafio berriak

Testua: **Zuberoa Iturburu**

—Bost urte bete ditu Berriak. Nolako zen hasierako hura?

—Jende asko aritu zen lanean martxan jartzeko eta ilusio handia bildu zuen egitasmoak. *Berria berri* izena jarri genion kanpainari eta egunkari modernoagoa egiten saiatu ginen, egunkari aldaketa zegoela baliatu genuen. Ikusgarriagoa egiten ere saiatu ginen, baita modernoago ere, jendeak errazago irakurriko zuena. Bi egunkari batean biltzen saiatu ginen, orduan *Tartea* atala gehigarria zelako. Eredua berria ekartzen saiatu ginen eta jendea gustatu zitzaion.

—Eta egungo Berria, nolako da?

—Hasierako baino helduagoa, ustez hobe, baina bost urte daramatzagulako Berria egiten eta, aurretik, beste hamahiru Euskaldunon Egunkaria egiten. Pentsatuagoa da, landuagoa, urteek ematen duten eskarmentu eta esperientziarekin. Aldaketak etengabe egiten gabiltza, gainera. Orain bi urte goitik behera berritua genuen eta, ekainean eta urrian, beste aldaketa batzuk egingo dizkiogu. Dinami-

koagoa eta biziagoa da.

—Zer eskaintzen dio irakurleari?

—Informazioa, bakoitzak gero bere ondorioak atera ditzan; iritzia eta entretenitzeko moduko informazioa; batik bat horiek eta, gainera, ahalik eta kalitate handiena.

—Zer gordetzen du Euskaldunon Egunkariatik?

—Izpiritua, irakurleei zerbitzu ona ematea, profesionaltasuna, kalitatea... Herri honek egindako egunkaria da, herri honentzat egindakoa, herri honekin batera egindakoa. Hura ere bazen Euskaldunon Egunkaria eta

—Eta zertan aldatu da?

—Helduagoa eta hobe dela. Baina hobe da ez Euskaldunon Egunkaria txarragoa zelako, bost urte gehiago pasa direlako baikik eta, epe horretan, gauzak hobeto egiten ikasi dugulako.

—Euskaldunon Egunkariarik gabe, Berria ez litzateke existituko?

—Egunkaria existitu izan ez balitz, sortu beharko zen. Beraz, herri honek izango zukeen gaitasuna Egunkaria sortzeko. 90ean sortu zen, Egunkariarik gabe urte asko zeramala herri honek eta ez zukeen asko

“Herri txiki batek egindako egunkaria da, baina mundura zabaldua; modernoa eta bisualagoa izatea bilatzen dugu”

beste hedabide batzuk ere euskal prentsan, noski, ez gara gu bakarrik, baina herri honekin pentsatua da, herri txiki batetik egindakoa baina mundura zabaldua. Modernoa izatea bilatzen dugu, bisualagoa.

iraungo Egunkaria bat egin gabe.

—Egunkaria itxi zuten eta herritarrek babes eta elkartasun oso handia eskaini zioten hari, baita atxilotu zintuztetenoi ere. Atxilotetatik atera eta kalean gertatu ze-



na jakitean zer sentitu zenuen?

—Esker handia, ikaragarria izan baitzen jendearen elkartasuna atxilotuta geundela. Guk ez genekien Donostiako manifestazioa handi hori egin zenik artean. Beraz, oso eskertuta gaude jendearekin, oso zorretan eman zigun laguntza eta berotasunagatik. Guregatik asko saiatu zen, asko kezkatu zen eta hori pozgarria da beti.

—Beraz, zerbait positiboa atera al zaio hari guztiari?

—Bai, krisi guztietatik ateratzen dira gauza positiboak eta ikasten da. Gertatzen dena zera da, gure kasuan, krisiaren prezioa oso garestia izan zela. Gaur egun batzuetan txantxetan esaten dugu Berriak saltzen duela Egunkariak baino gehiago Guardia Zibilari eta Espainiako Auzitegi Nazionalari esker. Baina hori oso prezio garestia da.

—Orain dela aste bi, Madrilgo epaile batek Iñaki Uriaren tortura salaketa artxibatatu du, Donostiako epaileak adierazi arren epaiketa egin behar dela.

—Imanol Muruak oso ondo idatzi zuen biharamuneko analisis: «Estatuak ondo funtzionatzen du, justiziak ez du funtzionatu behar». Esaldi horrek borobiltzen du oso modu garbi eta trinkoan esan litekeen guztia. Estatuak bere lana egiteko behar du justiziaren laguntza, baina justiziak ez du funtzionatzen horrelakoetan; ez du funtzionatu nahi izaten, Estatuak funtziona dezan.

Garbi dago hemengo epaile batek ikusi zuela nahiko motibo epaiketara joateko, kompetentzia arazo bat sortu zen, azkenean Madrilera eramane zuten auzia eta han, hartu eta artxibatatu dute Iñakiri deitu gabe deklaratzera. Hori eskandalua da prozedura juridiko aldetik. Bakarrik uler daiteke epaileen torturak ez ikusteko borondatearekin.

—Zuk hainbat tokitan eta hedabidetan eman duzu zure esperientziaren berri eta salatu duzu tortura. Zergatik?

—Gu izateko azkenak. Sortzeko giza olatu handi bat gure torturak izateko azkenak. Zoritxarrez, ez da horrela gertatu eta Estatuak torturatzen jarraitzen du. Helburu horrekin egin nuen, aprobetxatuz guk ba-

geneukala horrelako sinesgarritasun bat, jendearen aldetik hartze bat genuela. Lortu genuen jende askoren begiak irekitzea torturaren aurrean, seguru asko, gaiari buruz dakitenek esaten baitute gure kasua mugarririk bat izan zela; baina ez da nahikoa izan torturarekin bukatzeko.

—Euskal Herriatik kanpo ere babesa eta elkartasuna jaso zenuten. Kataluniako kasua nabarmenena.

“Justiziak ez du funtzionatzen horrelakoetan; ez du funtzionatu nahi izaten, Estatuak funtziona dezan”

—Bai eta ez da bukatu, orduetik tarteka hara joaten bainaiz hitzaldi bat emateko edo mahai ingururen batean parte hartzeko. Sariak ere jaso ditugu. Oso pozik gaude Euskal Herrian jasotako elkartasunarekin eta Herrialde Katalanetan ere ikaragarria izan zen babesa. Oso euskaldunen aldekoak dira. Berehala ulertu zuten Egunkariaren kontrako, Euskal Herriaren kontrako, euskal prentsaren kontrako eraso hura. Oso sendo erantzun zuten. Madrilatik, Valentziatik eta Galiziatik ere jaso genuen elkartasuna eta nazioarteko erakunde eta hedabide asko interesatu ziren.

—Epaiketa bi egingo dira, fiskalak akusaziorik aurkeztu ez arren. Nolatan?

—Bai, botere faktiko batzuk badaude Espainiako Justizian azken urteotan, Dig-

“Lortu genuen jende askok begiak irekitzea torturaren aurrean, baina ez da nahikoa izan torturarekin bukatzeko”

nidad y Justicia eta AVT, eta lan faktikoa daramate aurrera. Kasu honetan, fiskalak, hots, Estatuaren ordezkariak, esaten du ez dagoela arrazoirik epaiketa egiteko. Beraz, horren aurrean, eurak aktibatzea pentsatu dute erakunde horiek. Guk ez dugu akusazio partikularrik, kaleko inork ez digu leporatzen gure jardunaren biktima denik. Ez

digute leporatzen ekintzaren bat egitea. Beraz, ez dugu akusazio partikularrik, biktimarik ez dagoelako. Herri-akusazioa bakarrik dago. Eta horrekin soilik erabaki dute epaileek epaiketara joatea. Hori oso sintoma txarra da guretzat eta kezkatzen gaitu.

—Non kokatzen duzu Egunkariaren aurkakako eraso hori?

—Orduan zegoen egoera politikoaren bar-

nean. Espainiako eta Gasteizko Gobernuaren arteko harremana oso txarra zen eta PPk eta Guardia Zibilak susto bat eman behar zieten euskaldunei. Gu aukeratu gintuzten, inork espero ez zuela. Abisua eman zuten, horrela edozer egiteko gai zirela frogatzeko. Inork espero ez zuena egin zuten, modurik gogorrenean. Estatuaren partetik indar erakustaldia izan zen.

—Beste hedabide batzuk ere itxi dituzte, Egin egunkariko langileak kartzelaratu... Nolako etorkizuna sumatzen duzu?

—Epe laburrean guretzat txarra eta, orokorrean, euskarazko komunikabideentzako txarra eta konplikatu, gauden egoera politikoa ikusita. Madrilen bultzada politikoarekin egiten diren epaiketetan gutxieneko bermeak ez dira errespetatu. Horrela

urteurrena dela eta. Orduan jasotako babesa eskertu nahi duzue?

—Ekitaldien helburua izan da jendea eskerrak ematea. Duela bost urte horrenbeste diru eman ziguten, sekulako babesa, elkartasuna eta maitasuna eman ziguten eta, bost urte hauetan, horrekin guztiarekin hauxe egin dugula esan diegu: egunkari nazional bat egin dugu, zazpi egunkari lokal egiten lagundu dugu, Nora aldizkaria martxan jarri dugu, egunotan iragarkiak.com gunea abiatu dugu eta hamabost telebista lokaletako egitasmoan sartuta gaude. Hori da diruarekin egin duguna eta gauza gehiago egitea gustatuko litzaiguke gainera.

—Donostiako Kursaalaren egin duzue azken ekitaldia eta leporaino bete duzue.

—Halaxe da. Eneko Olasagastik zuzendu du ikuskizuna. Bera oso trebea da lan horretan. Kantariak, dramatizazio pixka bat egon da eta Euskaldunon Egunka-

riaren auzian dauden auziperatuen egoera azaldu da. Hau izan da handiena, ikuskitu izan ikusgarria.

—Atal hori bukatuta, orain hurrengo fasera begira jartzeko unea da. Zein erronkari heldu behar dio orain Berriak?

—Segitu behar dugu jendeak emandako konfiantza hura irabazten, horiei zerbitzu

resgarria eta entretenigarria izango den zerbitzua eskaini behar diogu.

—Eta euskarazko komunikazioak?

—Erabiltzaile-hartzaile gehiago lortu behar du euskarazko komunikazioak eta, orokorrean, euskarazko produkzioak: zinema, musika... Badira euskaldun asko produktu horiek normalean kontsumi-

“Produktu gutxi eskaintzen dugu euskaraz eta hartzaile berriak erakarri behar ditugu horiek kontsumitzera”

berriak eskaintzen, Berria hobetzen, Hitzak hobetzen, telebista lokalak egiten, egitasmo berriei aurrera jarraitu behar dugu eta beste egitasmo batzuk izan behar ditugu buruan. Hau da, lanean segitu behar dugu eta ez atsedetik hartu. Jendea zerbitzu ona emateko ahaleginetan jarraitu behar dugu, kalitatezkoa, inte-

tzeko joera ez dutenak. Horiek erakartzen saiatu behar dugu. Izan ere, egun bi ardatz dauzka euskarazko komunikabideen sektoreak. Bata da oraindik oso produktu gutxi ari garela eskaintzen eta, bestea, hartzaile berriak ekarri behar ditugula euskarazko produktuak kontsumitzera. ◯

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
 Kalea & zenb.....Herria.....
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
 Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□



UK Urbe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Gebxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37






Arkatilak

Jeneralean egiten ez den ariketa egitea otu zaigu: aurrera barik, behera, lurrera begiratu eta zapaltzen dugun hiriari arreta apur bat eskaini. Eta arkatilekin egin dugu topo. Makina bat arkatila dago gure hirietan, lur barruko mundu ezkuturako ehunka ate multiforme.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**







I

Iñaki Bixitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Telletxe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ?KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!!

T: 460 38 90
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobari 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

New Yorkeko ikastaroak

Bilbon eskainiko ditu berriro ere New York Film Academyk zine lantegiak **uztailean**



Harremanetarako: 676 040 661 / eventurini@creativityzentrum.com / www.nyfabillbao.com/index.html

Nazioartean entzute handia duen New York Film Academyk (NYFA), bigarren urtez, Bilbo aukeratu du bere egoitzatik kanpo ematen dituen ikastaroak eskaintzeko. Ekainaren 30etik uztailearen 28ra bitartean eskainiko diren Zine Digitala eta Zine Antzeppen ikastaroen buru izango da NYFAko irakasle den Michael Unger. Eskolen ordutegia 10:00-17:00 bitartekoa izango da, guztira 200 ordu; esperientzia ez da beharrezkoa horietan parte hartzeko, baina ingelesa jakin behar da (hizkuntza horretan bakarrik emango direlako eskolak) eta 2.200 euroko prezioa dute. Ikastarootan 40 bat lagunentzako lekua ei dago.

NYFAk bere New Yorkeko eskolatik kanpo Londres, Paris, Tokio, Lisboa, Abu Dhabi, Erroma, Shangai edota Seulen eskaintzen ditu mota honetako ikastaroak eta aurten, berriro, Bilbora ere hurbilduko da. Creativity Zentrum erakundeak lagundu du ikastaroak antolatzen eta Bilboko

Udalak, BBKk eta Merkataritza Ganberak finantza-laguntza emango ei dute.

Ikasgaiak

Zine Digitaleko ikastaroan parte hartuko duten ikasleek, besteak beste, hurrengo ikasgaiak (praktikoak) jasoko dituzte: proiektuen idazketa, filmaketa, ekoizpena, zuzendaritza, argiztapena etab. Ekoizpen-osteko eskola gehigarriak ere izango dituzte eta orotara 3

«Londresen, Parisen, Tokion, Lisboan, Erroman etab. ematen dituzte ikastarook»

film labur osatuko dituzte. Bestalde, Zine Antzeppena ikastaroko ikasgaiak ondorengoak izango dira: eszenaren ikasketa, pelikula baterako antzeppena, antzeppen teknika, ahotsa, mugimendua, bat-batekotasuna, *casting* aurkezpena, zinearen artea, entzumen teknika, bakarrikzaketak etab. o

Hirugarren "Bilbo Zuzenean"

Uztailaren 4tik 6ra Kobetamendi (Bilbo) da ordainpeko **jaialdi erraldoiaren** topalekua



Irudian, The Prodigy. Informazio gehiago: www.bilbaobbklive.com

Aurreko zenbakian enpresa berak, Last Internacional Tourrek antolatzen zuen Kobetasonik jaialdiaren berri eman genuen, oraingoan, hirugarren urtea beteko duen *Bilbao BBK Live*-n berri ematera gatoz. Aurtengo jaialdiko egitaraua osatzen duten taldeak ez dira, ez, edozelakoak: The Police, The Dandy Warhols, The Charlatans, Morcheeba, Gari... (horiek hilaren 4an); REM, Lenny Kravitz, The Prodigy, The Raveonettes, Krakovia, Hotel Persona... (hilak 5); eta azken egunean Madness, Tequila, ZZ top, Riders on the Storm, Quique Gonzalez & La Aristocracia del

Barrio... 3 egunetarako sarrerak 165 euro balio du, hilaren 4rako eta 5erakoek 72 euro bakoitzak eta azken egunekoak 50 euro. Jaialdirako kanpaldi gunea hilaren 3an zabalduko dute, baina agian ez da egongo bertaratzeko doako garraiorik. Orain dela urte batzuk gurean ez ziren hain ohikoak masei begirako ordainpeko musika jaialdiak (iazko BBK Liven 95.000 lagun izan ziren), atzerriko arrakasta handiko taldeak zuzenean ikus-entzuteko aukera ematen zutenak; baina orain, garaiko egiteko moduei "egokitu"-edo egin gara, eta poltsikoak hustuz atzerriko arrakastadunakaz gozaten dugu. o

diskoak

Euscat
Trikizio
Baga Biga



Euskal Herria eta Kataluniako kanturik ospetsuenetakoak bertsionatu ditu disko honetan Trikizio taldeak. Bi hizkuntzak elkarbanatzen dira disko bakarrean. Besteak beste talde hauen kantak aurki daitezke lan honetan: Su ta gar, María Mercé, Hertzainak, Luis Llach, Kortatu, Inadadats, Kaxiano edota La gallineta.

Pablo de Málaga
Enrique Morente
Edizo berezia



Granadako "kantaor" handi honen beste proposamen iraultzailea da hau. Pablo Picasso margolari ospetsuaren lanak inspirazio iturri bezala hartu ditu Morentek. Margolariaren idazki ezezagunak egokitu eta gero, diskoa osatzen duten hamahiru kanten letrak egin ditu kantearen maisuak.

Flavors of entanglement
Alanis Morissette
Maverick Records



Bere bizitzan oinarritutako argazkiak eskaintzen ditu kanadiarrak oraingoan. Kanta delikatuak eta hauskorak, bera bakarria egiten duen estiloaz interpretatuak. Musika elektronikoa ekoizten duen Guy Sigsworth (Björk, Imogen Heap edota Madonna) britaniarra izan du bidelagun Morissettek diskoa osatzeko orduan.

zuzenean >

Esne Beltza Sopelan



Gehienak Fermin Muguruzak azkeneko birarako sortu zuen bandako partaideak dira, baina badira Etzakit, Joxe Ripiau, Izotz, Su Ta Gar, Selektah kolektiboa,

Mal de Ojo, Karidadeko Bentako partaide ohiak ere Esne Beltza taldean; eurek dira: Xabier Solano, Sergio "Patxuko", "Jontrombon" eta Haritz Lonbide, Iban Zugarramurdi, Pello Gorrotxategi, Jon Mari Beasain, Aitor Zabaleta eta DZ. Zuriak egindako musika beltza, hori islatzen ei du taldearen izenak eta *Made in Euskal Herria* da Gaztelupeko Hotsak banatuko duen hamaika hizkuntzatan abestutako euren lehen lanaren izenburua. Soul, ska, reggae, funky, hip-hop musika aurkituko ditugu disko dantzagarri honetan eta uztailearen 18an Sopelan eskainiko dute kontzertua.

Informazio gehiago: www.esnebeltza.com

saria >

Benito Lertxundi

Lizarrako Irujo Etxea Fundazioaren VIII. Manuel Irujo saria jaso berri du Benito Lertxundik "euskalduntasunaren eta euskal kulturaren alde egin duen lanagatik". 40 urtetik gorako ibilbide oparoan Oriokoa hamaika euskal lapikoetako buruntzadi izan da: *Ez Dok Amairu*, 14 disko baino gehiago, milaka kontzertu, euskararen aldeko ekitaldien bultzatzaile... Euskararen eta euskal kulturaren errefente bati, gure partez ere: Eskerrik asko eta beyondezula!

Informazio gehiago: www.lertxundi.net

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroaten dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure eskarian

Getxo eta Berango artean
Tel: 94 430 15 00

etorri
eta
ikusii!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Lauaxeta gaurko euskaraz

Miren Billelabeitiak batuara ekarri ditu Estepan Urkiagaren aukeratutako olerkiak

Orain dela hilabete inguru plazaratu zuen Utriusque Vasconiae argitaletxeak Miren Billelabeitiak (Mungia, 1960) egokitu eta atondutako *Lauaxeta. Oihartzunak* liburua. Lan hori osatzen duten Estepan Urkiaga "Lauaxeta"ren (Laukiz, 1905-Gasteiz, 1937) olerkien aukeraketa Billelabeitiak berak egin du, baina ez da bilduma soila, izan ere liburuaren garrantzi nagusia hurrengoan datza: XX. mende hasierako idazkera izan daitekeen oztopoa gainditzeko asmoz, eta idazle bizkaitarra XXI. mendeko irakurlearengana hurbiltzeko helburuagaz, olerkiok gaurko euskara batuara ekartzea. Hau da, irakurketa erraztu nahian, Lauaxetaren idazkera gaurko idazkera (euskara)

«Lauaxetaren 30 olerkiz gain, harengan eragina izan zuten europar idazleenak ere badira»

batuara aldatu, egokitu egin du Mungia institutuan literatura irakasle den Billelabeitiak, "idazlearen estiloa ahalik eta gehien errespetatuz, bai hiztegi, bai esatera aldetik". Lauaxetaren haututako 30 olerki horiez gainera, Laukiz-Mungia poetarengan eragina izan zuten idazle europarren testuak ere biltzen ditu lan honek, berbarako, ondorengo poemak (jatorrizko hizkuntzan): Rosalia de Castro, Heinrich Heine, Sully



Lauaxeta (Laukiz, 1905-Gasteiz 1937)

Proudhomme, William Shakespeare, E. Dickinson, C. Rosseti, C. Baudelaire, K. Kavafis, Arthur Rimbaud, R. Alberti, Antonio eta Manuel Machado, Juan Ramon Jimenez, Federico Garcia Lorca, Rabindranath Tagore etab.

Billelabeitiak adierazi zuenez, "pena izango litzateke euskal poesia berri zuen idazlea amaraunez beteriko txokoan bazterturik geratzea". Lauaxetak euskal olerkigintza europartu eta modernizatze egin zituen ahaleginak, 30. hamarkadako euskal poesia une hartan Europako giro literarioan egotzen zenaren parean ipintzeko saiakerak, haren inspirazioaren bideak, ardura literarioak... gal ez daitezten Billelabeitiaren eskertzeko moduko ekimena da *Lauaxeta. Oihartzunak*. ○

liburuak



Tom hil da
Marie Darrieussecq
Alberdania

Lau urteko Tom semearen heriotzatik 10 urte pasa direnean, ama baten kontakizun xumea da, esaldi bat bestearen atzetik jarrita koaderno batean. Darrieussecqek (Baiona, 1969) orain dela urte bat inguru argitaratu zuen liburua Karlos Zabalak euskaratu du.



Souvenir
Castillo Suarez
Elkar

Goxotasuna eta gordintasuna oparitu dizkigu oraingoan Castillo Suarez (Altsasu 1976) bere hirugarren poema liburu iradokitzaila honetan eta giza harremanetako arazoetan sakon eta zorrotz murgildu da oraingoan ere nafarra.

[kirola]

Olgetan saskibaloian ikasiz

Getxo Saskibaloitalko taldeak antolatzen duen udako campusa daborduko hasi da



Harremanetarako: 667 516 333 / 610 326 470 / getxosaski@euskalnet.net

Bosgarren urtea bete du aurten Getxo Saskibaloitalko taldeak prestatzen duen udako campusak. Pasa den urtean 7 eta 16 urte bitarteko 200 bat gaztetxok parte hartu zuten saskibaloitalko campusean eta aurten apur bat gutxiago badira ere, 150 bat neska-mutilek jardungo dute bertan. Antolatzailak diotenez, "udako oporraldian saskibaloian jolastu nahi duten eta herriko bezkuntza zentroetan ikasten duten neska-mutileen topaleku" izateko asmoagaz antolatzen dituzte saskibaloitalko campusak. Horrez gainera, campusaren helburu nagusia Getxon saskibaloia sustatzea da.

Campusa hiru txandatan banatzen dute antolatzailak: lehenengo dagoeneko amaitu da, ekainaren 23tik 27ra bitartekoa zen eta; bigarren txanda ekainaren 30ean hasi eta uztailearen 4an amaituko da eta azkeneko txanda uztailearen 7tik 11 artean egingo da. Orduetgia goizeko 9:00etatik arratsaldeko 6:00etara artekoa da (bazkaltzeko atsedendialdiagaz), eta aurten Andra Mari ikastetxeko zelaia aukeratu dituzte saskibaloian olgetan ibiltzeko eta ikasteko. Prezioari dagokionez, ume bakoitzak aste

bakoitzeko 115 euro ordaindu behar ditu, baina neba-arrebentzako eta txanda bat baino gehiagotan parte hartu gura duenarentzako prezio bereziak daude. Prezioaren barruan campusaren eskaintzak hurrengo ekimen eta gauzak ematen ditu: kirol-hezitzaileen irakaskuntza, bazkariak eta askariak, umeentzako baloi bana, kirol jantzia, aisialdiko ekintzak, parte-hartzea egiaztatzen duen diploma eta erantzukizun zibileko segurua.

«Andra Mari ikastetxean egingo da aurten udako saskibaloitalko campusa»

Getxo Saskibaloitalko taldeko arduradunen esanetan, harro egoteko arrazoiak bat hori da, haur eta gazteak dibertitzen diren heinean ikasten dutela saskibaloian jokatzen, edo bestela esanda, euren teknika zein jokatze moduak hobetzen dituztela ondo pasatzen duten bitartean. Amaitzeko, azken egunean saskibaloitalko jaia antolatzen dute partaide eta guraoakaz. ○

Informazio gehiago: www.getxosaski.com

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris.s.l. SERVICIO



94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezi, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Richars Meza > diseinatzailea

“Denboran zehar garatzen dugun markak bereiziko gaitu besteengandik”



Richars Meza, GETXOPHOTOko aurtengo kartela eskuartean duela

Barfutura diseinu estudioko kidea da Richars Meza. Peruarra da, baina munduko puntatik puntara ibili da bere ogibideari forma ematen. New Yorken ikasi zuen, han sortu zuen Barfutura, Tokion ibili zen gero eta orain bost urte, Madrilan zabaldu zuen estudio propioa Sergio Gonzalezekin batera. GETXOPHOTOren logotipoa diseinatu zuten iaz eta hari esker irabazi dute European Design Awards saria Estokolmon. GETXOPHOTOko aurtengo ediziorako kartela ere euren egin dute. Orain aste bi aurkeztu dute Algortako Portu Zaharrean.

—Barfutura estudioa. Zer da, zer egiten duzue?

—Diseinu estudioa gara, orain bost urte zabaldu genuen bulegoa Madrilan nire kideak eta biok. New Yorken ezagutu genuen elkar, han ikasten genbiltzala. Barfutura sortu genuen 2001ean eta Tokyora joan ginen ondoren. Beste konpainia batzuentzako lan egiten genuen baina, aldi berean, hainbat lan egin genuen gure kabuz. 2003an erabaki genuen Madrilera mugitzea. Orokorrean, entretenimenduagaz lotutako kontuak egiten ditugu.

Hori dugu gustukoena, baina noski, bestelako lanak ere onartzen ditugu.

—European Design Awards saria jaso berri duzue GETXOPHOTOko logotipoari esker. Zertan datza?

—Bigarren urtez eman dituzte sariok aurten. Europar Batasuneko herrialdeak lehiatzen dira eta epaimahaia diseinuari buruzko hamar bat aldizkaritako editoreek osatzen dute. Gure esfortzua aitortzera dator saria. Aurrerapauso handia da, Europako diseinatzaile onenek aintzat hartu dutelako gure lana.

—Nondik hartu zenuten inspirazioa GETXOPHOTOko logotipoa egiteko?

—Hitza bera deskonposatzea izan zen oinarria. Zerbait berritzailea nahi zuten arduradunek, argazki jaialdia ere berritzailea baita, Getxo eraldatzen duelako. Existitzen denetik abiatuta, zerbait berria eratzen du. Beraz, hitza berriro ordenatu genuen, zerbait berria sortzeko.

—Aurtengo kartela ere zuek egin duzue. Zergatik horrela?

«Getxophotoko logotipoa eraldatu dugu, forma askeagoa eratzuz»

—Aurrekoarekin apurto gura genuen, zerbait desberdina egin, baina era berean, funtsa mantendu. Aurtengo gaia mutazioa da. Logotipoa nahiko grafikoa da eta eraldatu dugu, pintzelagaz eta tintagaz margotu dugu, forma askeagoa eratzuz. Logotipoa ezagut daiteke, baina aldi berean, irudikapen moduko bat da. Zirragarria da. Estokolmon egonda eta hainbeste lan on ikusita, inspirazioa ekarri dugu.

—Diseinua saritu dute han, bai, baina zer da diseinua?

—Diseinua identitatea da, horixe da gure filosofia Barfaturan. Diseinua toki guztietan dago, baina bakoitzak berezko irudia bilatzen du. Pertsona bakoitza bakarra da, marka bakoitza bakarra da. Denboran zehar garatzen dugun markak bereiziko gaitu besteengandik.

—Eta zer ekarpen egiten dio diseinuak GETXOPHOTO bezalako ekimen bati?

—Kultura jaialdi batek diseinu indartsua behar du, beste guztien artean bereizteko. Are gehiago argazkilaritzan, argazkiak berak baitira protagonista. Ezin daiteke egin argazkiei arretea kenduko dien diseinu bat. Argia, garbia eta grafikoki indartsua izan behar du; horrela hasten da eraikitzen identitatea. ○

“Getxo, akordaten naz”

Herriko euskaldun zaharren testigantzak, oroitzapenak eta euskara jasotzen dituen dokumentalaren...

...kopia bat eskuratu...

...nahi baduzu
“uk@aldizkaria.biz”
helbidera mail bat idatzi.

10 ale dauzkagu
UK-ko harpidedunen
artean banatzeko

139. zenbakiko irabazleak

Javi Duoandikoetxea
Juan Ramon Arana
Lontzo Zugazaga
Galder Unzalu



akabuko
aleak!!!



Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 Algorta GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37

Liburutegian liburu bat aukeratu, irakurri gozatu eta itzulitakoan beste liburu bat erosi eta gozaten jarraitzeko % 25eko deskontua lortuko duzu.....

**IRAKURRI,
GOZATU
ETA
OPARITU**

Apirilaren 23tik uztailaren 26ra

www.topagunea.org/irakurri

ANTOLATZAILEA



TOPAGUNEa
EUSKARA ELKARTEN FEDERAZIOA


BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Azkoitia: MAXIXATZEN, Altsasu: KIMA, Atarrabia: KARRIKALUZE, Basauri: EUSKARABILA, Bergara: JARDUN, Deba: ZUHATZA, Durango: BERBARO, Erandio: BERBOTS, Ermua: EUSKAL BIRUSA, Etxarri-Aranatz: BIERRIK, Igorre: GANORAZ, Irurtzun: AIZPEA, Iurreta: GURIEN BAI, Mahatserría (Biilbo): ASAPALA, Markina-Xemein: UHAGON, Santurtzi: BAI ESAN, Zaldibar: EIXU

[norajoan]

Sustrai Taberna

Berriro gure artean, pintxo eta guzti!



Urko Manzano eta bere lantaldeko kide bat, Sustrain

Ohikoa da Algortan aspaldi itxitako tabernak berriro zabaltzen dituztela ikustea. Oraingoan, Basagoiti Etorbideko Sustrai tabernaren txanda izan da. Azken sei urtean Telletxe enparantzako Baserri taberna kudeatzen ibili den Urko Manzano arduratu da taberna txukundu eta zabaltzeaz. Maiatzaren 19an, Manzanoren urtebetetze egunean, zabaldu zituen ateak: *"Pintxoak eta edariak dohainik banatu genituen; jende asko hurbildu zen eta giro polita sortu genuen"*. Giro euskaldun jatorra bultzatu nahi du Algortan eta, horretarako, kartelak euskaraz idatzi, langile euskaldunak bilatu eta Nahia artista algortarrak herriko argazki zaharrekin egindako muntaiekin apaindu du taberna: *"Orain arte jendeak ondo erantzun du, gazte asko hurbildu dira. Barra gai-*

neko argazki-muntaiak ikustean, jendea harritu egiten da: begira, hori ni naiz!". Algorta "berpizten" ari dela uste du Urko Manzanok: *"Gauetan zein arratsaldeetan giro gehiago ikusten da; gainera, badirudi, onaingo Udal gobernua aurrekoa baino eskuzabalagoa dela ordutegiari dagokienean"*.

Giro jatorraz gain, jateko eta edateko aukera ona dago Sustrain. Zortzi tortilla mota eta 15 ogitarteko ezberdin dituzte; onddo edo gula tortilla eta atun edo pate ogitartekoak dira arrakasta gehien daukatenak. Gainera, arratsaldeko 19etatik aurrera eskaintza berezia egiten dute: pintxoak euro batean! Udan, terraza ateratzeko asmoa daukate; ea eguzkia atera eta terrazan eserita gozatzeko aukera ematen digun. ○

Basagoiti Etorbidea 71, ALGORTA

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

G gOZOLABEA

galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



ARTAZA ETXEA

jatetxea

- gozariak
- txuletoia • makailua
- arrain freskuak

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92

Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



**Asador
Goieztzi**



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak nonberaren gustura
 - Egunero karta berezia
 - Gauetz dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



prentsa • aldizkariak
 GETXOKO KIROL PORTUA
 Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
 ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
 T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN




Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pent

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
 T: 430 22 13 T: 460 02 88
 GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia



Usategi parkea z/g,
 Algorta


*Telf. erreserbak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

<p>URA</p>  <p>(Abenduak 21 - urtarrilak 19) Buruko minaz bazabiltza eta lasaiago geratu gura baduzu, medikuarengana joan beharko zenuke. Autoa zer moduz dabil, Ura? Lantzean behin, zelan dabilen ikusteko, azterketa sakon eta orokorra egin behar zaiola gogoratu.</p>	<p>OTSOA</p>  <p>(Urtarrilak 20 - otsailak 18) Baina zertan ibili zara daukazun itxura xeblebre horrekin? Ez zarela gogoratzen? Orduan primeran pasatuko zenuen, ziur. Behin eta berriro egiten duzu gauza bera: besteen lepotik barre egin, eta zeure burua babestu.</p>	<p>ADARRA</p>  <p>(Otsailak 19 - martxoak 20) Edukitzen dituzun gastuak gutxitu egin behar dituzula? Parranda gurtxiago egin, eta ederto gutxituko zaizkizu. Amets ugari egiten dituzu gauean, baina goizean, esnatzerakoan, egunerokotasuna nagusitzen da.</p>
<p>AITZURRA</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Bizitza profesionalen izugarriko aurrerapausua emango duzu eta horrek egonkortasuna sortuko du zeure inguruan. Txikitako beldurrak barru barruan dituzu oraindik. Ordua da horiek gainditu eta zeure benetako izaera garatzen hasteko.</p>	<p>HOSTOA</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Inoiz baino indartsuago zaude. Zeure buruarekiko erakusten duzun konfiantza horrek asko lagunduko zaitu, batez ere zure familian egon daitezkeen gorabehera ezberdinei begira. Izan ere, zeu izango zara oinarriko euskarrietako bat.</p>	<p>EGUZKIA</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Arazoei behar baino garrantzi handiagoa ematen badiezu, azkenean zoratu egingo zara. Gaur egungo teknologia berriak ez zara oso ondo moldatzen; baina lasai, denboragaz eta pazientziagaz dena ikasten da.</p>
<p>GARIA</p>  <p>(Ekainak 19 - uztailak 18) Batzuetan hobe da isiltzea eta arrazoiak besteei ematea, baina zuk ez dakizu ez bata, ez bestea egiten. Aterki txiki horregaz ez duzu lortuko euritik babestea, eta blai eginda loruko zara.</p>	<p>LASTOA</p>  <p>(Uztailak 19 - abuztuak 17) Osasuna eta dirua zeure alde dituzu, baina ez, ordea, lagunak. Badakizu zure umorea eguraldia bezain aldakorra dela, eta liskar bat baino gehiago izan dezakezu umorearen kontura.</p>	<p>IRATZEA</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Urrun daukazun familiako kideagaz askotan gogoratzen zara. Zergatik ez diozu noizean behin idazten? Ondo etorriko zaizu, eta berak biziki eskertuko dizu. Mendira sarriago joaten hasi beharko zenuke.</p>
<p>META</p>  <p>(Irailak 17 - urriak 16) Aspertuta zaudela askotan esaten duzu, baina egoera hori konpontzeko ez duzu ezer egiten. Denetan azkarrena zarela sarri erakutsi duzu, baina azkarrena izateak ez du esan gura adimentsuena izatea.</p>	<p>HAZIA</p>  <p>(Urriak 17 - azaroak 15) Azkenaldian bikote kideagaz denbora asko igarotzen duzu, eta hori oso ondo dago, baina lagunak ez ahaztu. Beharrezan zabiltzanean kontu handiagoa izan beharko zenuke, gero ezusteko txarrik izan ez dezazun.</p>	<p>NEGUA</p>  <p>(Azaroak 16 - abenduak 20) Azken boladan triste eta goibel zabilzta. Baina aspaldian ikusi ez duzun lagun baten bisitak asko poztuko zaitu. Berarekin ahaztuta dituzun tokiak eta pertsonak berrikusteko aukera izango duzu.</p>




GORLIZ IRRATIA
 Uribe Kosta Irratia 107.8 FM
 www.gorlizirratia.com



LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Nahaste. 2. Joriak, emankorrak. Iridioaren ikurra. 3. Hedabide bateko saioa. 4. Erroak, sustraiak. Berrogeita hamar. Boroaren ikurra. 5. Lehen pertsona. Eskomikua. 6. Azokako saltzaile. Bizkaieraz, bike. 7. Hidrogenoaren ikurra. Kontsonantea. Borroka mota. 8. Da, ingelesez. Bostehun. Ezagutzen dun. 9. Aulki bizkarduna. Erbioaren ikurra. 10. Talde baten izenean diharduen pertsona.

Goitik behera

1. Edonoizko. 2. Odon ..., euskaltzale arabarra. Sartu aditzaren oina. 3. Izpi luze, mehe eta malgu. Alkoholen bukaera. D bustia. 4. Aranondoaren fruituak. Du, haiei. 5. Apaizen jantziak. Arazo, bokalik gabe. 6. Zuberoko inauterietako karrika-dantzak eta ekitaldiak. 7. Frankismo ondoko karlisten siglak. Interjekzioa. Bokala. 8. Nitrogenoaren ikurra. Bilo. Ahuntzaren ar. 9. Esaten du. Ozar, lotsagabe. 10. Felix ..., idazle nafarra, erdaraz. Lehen bokala.

Soluzioak

V	I	R	A	K	Z	E	D	E	O
R	E	V	A	R	I	D	V	K	
N	I	K	A	D	D	S	I		
E	T	A	R	A	K	L	H		
I	U	I	R	A	K	O	Z	A	
V	M	E	T	A	N	V	I	N	
B	L	K	A	N	I	V	Z		
V	O	I	V	S	T	A	I	O	
R	I	K	O	A	K	I	R	O	
U	D	N	E	S	M	A	S	H	N

asmatu eta irabazi > **ARGIA** astekariaren opariak



Nor da?

- Donostiako alaba
- Aktorea
- laz Algortan errodatu zen film batean hartu zuen parte

> Aurrekoaren erantzuna: Eñaut Elorrieta
> Irabazlea: **Josu Borja** *

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
publiuk@aldizkaria.biz

Argia astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



Freexkue liburua

www.argia.com



BENE MARKAIDAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Sopelako Zalduondo Goikoa baserria, 1934

Izen ofiziala hori bada ere, sopoloztarrek betidanik Sagondo Goiko deitu izan diote baserri honi, udal erregistroaren arabera, gutxienez 250 urte dauzkana. Interesgarria da Zaldu baserria (Urdulizerako bidean dagoena) eta Zaldu Kanpo izeneko lur zatia ere badirela inguruan, hirurak bata bestetik ez oso urrun. 1903an baserri etxea erosi eta bertara bizitzera joan ziren Alejo Markaida eta Petra Benedicta Maurika. Erretratuan hamar seme-alabez inguratuta (hamaikagarrena, Maritxu, hiru urterekin hil zen) ikus ditzakezue. Gaur egun Zalduondo Goikoak (Sagondo Goiko) zutik dirau eta bertan oinordekoak bizi dira.

Argazki honen bultzatzaile nagusia, Felipe Markaida (argazkian zutunik bigarrena), handik hiru urtera beste hamahiru lagunekin batera fusilatu zuten Santofñako El Dueso espetxearen aurreko hondartzan. 1937ko urriaren 15ean, goizaldean egin zen hilketa. EAJ alderdiaren kide izateagatik erahil zuten Felipe. Hunkigarriak dira Juan Ajuriagerraren hitzak (bera ere bertan preso zegoen), egun berean idatzi zituen berbok urte asko geroago Egin egunkarian (1981) argitaratu ziren: *“Markaidak sekulako kemenaz gidatutako abertzaleen heriotza eredugarria izan da; Gora Euzkadi Askatuta oibukatuz erori dira”*. ◊

Zutunik: Jesus, Felipe, Bizenta, Carmen, Alejandro, Segunda, Gertrudis, Valen.
Jesarrita: Isabel, Alejo Markaida, Petra Maurika, Maria Teresa.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

XABIER AMURIZA > bertsolaria eta idazlea

“Berriro piztuko balitz, Charlotegaz gustura egingo nuke zeozer”

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Asier Mentxaka**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Xabier Amuriza.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Berriro piztuko balitz, Charlotegaz gustura egingo nuke zeozer.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Bat aukeratzekotan, artistaren bat, Van Gogh esate baterako. Artistak miresten ditut nik; enperadoreak eta erregeak gorroto ditut.

Orain zarena izango ez bazina zertan gustatuko litzaizuke jardutea?

Oraintxe naizena izaten ahaleginduko nintzateke, ez daukat beste alternatibarik.

Bizioren bat?

Nire bizio gehienak pentsamenduzkoak dira eta pentsamenduan bizio guztiak onartzen ditut.

Zer ez zenuke sekula barkatuko?

Barkatu edozer, baina ahaztu ez.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Ez naiz bidaiia luzeen zalea, neure Euskal Herrian oso gustura bizi naiz. Inora joatekotan Australiara joango nintzateke, baina urruntxo dagoenez, ez daukat joateko gogorik.

Irakurri duzun azken liburua?

Kafkaren *Prozesua* irakurtzen nabil. Asko gustatzen zait, ez dakit zenbat bider irakurri dudan; lantzean zatitxo bat irakurtzen dut eta hori da nire terapia literario eta artistikoa.


Gaua ala eguna?

Biak, baina gauak gutxiago beldurtzen nau egunak baino.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Neure jaiotetxea, Etxanoko Torreburu baserria, eta gaur egungo bizilekua. ○

LABURREAN — Ekainaren 20an Maialen Lujanbiorekin batera izan genuen Xabier Amuriza Algortako Portu Zaharreen, urtero bezala, bertan egin zen-eta *Balkoitik balkoira* bertso-saioa. 1941. urtean Zornotzan (Bizkaia) jaio zen Amuriza. Francoren diktadurapean zazpi urte egin zituen preso. Bi aldiz izan da Euskal Herriko Bertsolari Txapelduna, 1980 eta 1982. urteetan. Bertsoak botatzeaz gain, makina bat liburu argitaratu ditu. Ekarpengarrantzitsuak egin dizkio bertsolaritzaren munduari; izan ere, neurri eta doinu berriak sortzeaz gain, bertso eskolen bultzatzaile nagusietakoa izan da bera. 90eko hamarkadan, plazarik plazako ibilia utzi, eta bestelako formatu batzuk lantzen hasi zen. Gaur egun, horretan jarraitzen du.



Lanen aukeraketa / Comisariado por
ALEJANDRO CASTELLOTE & BEGIHANDI

GetxoJAZZ

GETXOKO XXXII. EUROPAR JAZZALDIA

UZTAILAK 8-12

2008



biotz alai plaza - 21:30

asteartea 8 :

Tutusaus Septet
(Espainia)
**IÑAKI SALVADOR
NONETO**

asteazkena 9:

Kristian Brink Quartet
(Suedia)
**JOHN McLAUGHLIN &
4TH DIMENSION**

osteguna 10:

Ondrej Pivec Organic Qt.
(Txekiar Errepublikak)
AVISHAI COHEN TRIO

ostirala 11:

Flux (Danimarka)
**ARTURO SANDOVAL
SEXTET**

larunbata 12:

Talde Lehiaketaren
Irabazlea
**ARCHIE SHEPP
QUARTET**

 944 914 080

www.getxo.net

info@getxokultura.com

 **Getxo**
KULTUR ERDIA

 **BFA
DFB**
Bilaketa Foru
Aldundia
Deputazioa
Foro de Bizkaia


EUSKADI
SOBIETEN ERREPUBLICA
GOBIERNO VASCO
GOVERNMENT OF BASQUE COUNTRY

EUSKADI
con mucho gusto

EL CORREO

 **Getxo**
UDALA - AYUNTAMIENTO - Turismoe

bbk

 **Logo**

 **metro bilbao**

 **Logo**

AUVOL MOTOR

gaiteren sarrimota
944 310 310
www.bbik.es
bbk